

Goienkaria

2010eko apirilaren 16a > Egubakoitza > X. urtea > 417. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Egindako kaltea zelanbait konpondu egin beharko litzatekeela uste dut"

Txema Auzmendi
'Egunkaria' auzian auzipetua > 08



G2a

Ismael Serrano, sahararren alde gaur Arrasaten > 31

AZPIEGITURAK
Jaurlaritzak ez du aldatuko AHTren Angiozarko bailarako trazatua > 05

HEZKUNTZA
Lanbide Heziketako zentroek azoka egingo dute gaur eta bihar > 05

TXIRRINDULARITZA
Gipuzkoako gazte mailako klasikoa bihar Bergaran (15:00) > 28

JENDARTEA > OSASUNA

Obesitatearen Klinika zabaldu dute ospitalean, umeendako

KONTROLA Eskualdeko ume lodi guztien kontrola egiten dute klinikan, gurasoekin elkarlanean

ZERBITZU GEHIAGO Ospitale berrian egongo dira neurologia zerbitzua eta semikritikoen unitatea, besteak beste

OSPITALE BERRIA Abenduaren 31n gertu egongo da eraikin nagusia; instalazio guztiak 2014rako izango dira prest > 02-03

JENDARTEA > ERLIJOA

Juan Kruz Mendizabal, bikario

Antzuolako eta Bergarako parrokoa bikario izendatu du Munillak eta Gotzaindegira doa > 05

Asier Agirrek ukatu egin du Udalaren parte hartzea AHTren galdeketa

Eguaztenean epaitu zuten Asier Agirre Aramaioko alkatea Gasteizko zigor arloko bigarren epaitegian, 2007ko irailean AHTren gainean herri galdeketa egiteagatik. Agirrek epaiketari azaldu zuen herritarrek sustatu zutela galdeketa eta gehitu zuen Udalak ez zuela ez diruz ezta baliabidez ere lagundu. Bestetik, epaiteka politikoa izan dela nabarmendu zuen. Fiskalak, desobedientzia eta prebarkazioa egotzita, 9 urteko inhabilitazioa eskatu du; defentsak, berriz, absolutzioa. Orain, sententziaren zain dago. > 04



AULKITXOAN Asier Agirre Aramaioko alkatea Gasteizko zigor arloko bigarren epaitegian deklaratu zuen.

JAIZKI MENDIZABAL / 'DIARIO DE NOTICIAS DE ÁLAVA'

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Zerbitzuak > 36
Telebista-irratia > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ARETO NAGUSIAN
etorri aurretik izena eman!

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE APIRILAK 24 larunbata - 11:00	ORDIZIA APIRILAK 17 larunbata - 11:00
---	--

Enpresagintza Fakultatea

IRUN 2. zikloa
MAIATZAK 6 osteguna - 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORATZA
APIRILAK 22 osteguna - 18:00

OSASUNA > AZPIEGITURAK

Urte amaierarako gertu izango dute ospitale berria

EKAINAREN 30A Bigarren fasea zelakoa izango den zehazten ari dira orain; Debagoieneko ospitaleko gerentearen arabera, ekainaren 30erako prest izango dute hori

KONPROMISOA Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak egitasmo horren aldeko konpromisoa hartu dute orain dela gutxi; 2014. urterako proiektu osoa amaituta izatea gura dute

ZERBITZU BERRIAK Urologia eta semikritikoen unitateaz gain, hematologia, neurologia eta erditze naturalerako gelak izango dira eraikin berrian; etorkizunean onkologia jartzea ere aztertzen ari dira



Dagoeneko igartzen da ospitale berriak izango duen egitura ikusgarria nolakoa izango den.

JOSETXO ARANTZABAL

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Abenduaren 31. Horixe da Debagoieneko ospitalearen eraikin berria amaitzeko aurreikusten duten data. Ospitaleko gerente Jose Luis Angulok azaldu digu obrak martxa onean doazela eta urtea amaitu bitartean horien atzeratzea eragiten duen zirkuntantziarik egon ezean, urte bukarako bukatuko dutela proiektuaren lehenengo fasea.

Horren harira, gogorarazi du lanak "nahiko aurreratuta" daudela: "Kanpotik eraikin berriak izango duen egitura ikusgarria dagoeneko jarrita dago. Barrutik ere oso aurreratuta daude, bereziki ospitalizazioaren atala eta urgentzia, izpi eta laborategiaren zerbitzuak. Garai berezian gaude, ebakuntza-gelen eta semikritikoen zainketarako unitatearen ekipamenduari dagokionez. Lehiaketak martxan daude".

BIGAREN FASEA, EKAINERAKO

Proiektua hiru fasetan banatuta dago. Lehenengo fase horretan eraikin berria egiten dihardute; gaur egungo anbulatorioaren atzealdean dagoen tokian, hain justu ere. Bigarrenean, ospitalearen zati zaharra botako dute eta hantxe jarraituko dute eraikitzen. Anguloren arabera: "Fase horrek zelakoa izan behar duen zehaztuta izango dugu ekainaren 30erako. Horren gaineko proiektua egina badago ere, hainbat aldaketa daude aurreikusita eta horiekin gabilta orain".

Horren harira, dio dagoeneko hasi direla bota behar duten eraikineko zerbitzuak birkokatzen; esaterako, historia klinikoaren artxiboa, biltegiak eta aldagelak eraikin berrira mugitu dituzte.

PROIEKTU OSOA, 2014. URTERAKO

Angulok esku artean dituen aurreikuspenen arabera, bigarren fase horrek 2012. urteko amaierarako edo 2013ko lehen sei hilabeteetan amaituta egon beharko luke. Azkenik, gaur egungo eraikinaren zati berria egokitzeko beste urtebete beharko lukete. Hortaz, 2014. urteko amaierarako proiektu osoa bukatuta izatea aurreikusita dago.

KRISIAK, ERAGINIK EZ

Bestalde, krisi ekonomikoak eraginik ez duela izango uste du ospitaleko gerenteak. "Egia da egungo egoeraren gaineko azterketa egin dela; horrekin erakundeen baliabide ekonomikoak ahalik eta ondoen erabiltzea ahalbiderratu nahi izan da. Baina Osakidetzak eta politiko esanguratsuek, tartean Legebiltzarreko presidente ohi eta ospitale honetako gerente ohi Blanca Roncalek (PSE) eta beste hainbat legebiltzarkidek, ziurtatu dute aurretik esandako datak bete egingo direla, aurreikusitako baliabideekin. Hortaz, Osasun Sailak eta Osakidetzak proiektu horren aldeko apustu garbia egin dutela esan genezake".

Horren harira, joan den urtean Eusko Jaurlaritzan egon den gobernu aldatetaz ere jardun du. Osasun Sailaren jarrera "positiboa" azpimarratu nahi izan du, egitasmo horrekiko duen konpromisoagatik.

ERAIKIN BERRIA, PRINTZIPALA

Proiektu osoa amaituta dagoenean erabat aldatuko da ospitalearen gaur egungo organigrama. Debagoienarrek honako zerbitzuak topatuko dituzte orain egiten ari diren eraikinean: bigarren solairuko sotoan parkinga egongo da; lehenengo solairuko sotoan, farmazia, sukaldea eta bloke kirurgikoaren esterilizazio gunea; beheko solairuan, harriera, urgentiak eta erradiologia; lehenengoan, 6 operazio gela dituen bloke kirurgikoa (gaur egun lau daude), operazio ondoko bizkorketarako unitatea, semikritikoen unitatea, eguneko ospitalea eta erditze-gelak; bigarrenan, ospitalizazio kirurgikoa; hirugarrenean, ospitalizazio medikua; eta azken solairuan, ama-haurren ospitalizazio gunea eta laborategia.

Bigarren faseko eraikinean gune administratiboak jartzeko asmoa dute, hala nola askotarikoko ekitaldietarako aretoa, profesionalendako gelak, biltegiak, beilatokia, eguneko ospitalearen eta aparkalekuaren handitzea. Azken fasean egokituko duten eraikinak egun ambulatorioan dauden kontsultak hartuko ditu.

SEMIKRITIKOEN UNITATEA

Proiektu horrekin hainbat zerbitzu berri jarriko dira martxan balaran. Horien artean, azpimarratzekoa da eraikin berriaren funtzionamenduan jarriko duten semikritikoen zainketarako unitatearena. Anguloren esanetan,

"egun, larri dauden gaixoak Gasteizera doaz; bihotzetako arazoak dituztenak Txagorritxura eta gainerakoak Santiagora". Aipamen berezia merezi duen beste zerbitzua urologiarena da; iaztik abian dagoen zerbitzua, hain justu.

Ospitaleko gerenteak gogorazazi du hematologia eta neurologia unitateak jartzeaz gain, eguneko ospitalea eta ama-haurren ospitalizazio guneak ere handiko direla. Azken horren harira, Angulok nabarmendu du erditze naturalerako gelak izango dituela ospitale berriak: "Gu dagoeneko hasi gara zerbitzu hori ematen. Baina ditugun baliabide fisikoak ez dira egokienak.

Administrazioa doa bigarren faseko eraikinean; azken fasean egokitutako eraikinak kontsultak hartuko ditu

Aparkalekuaren harira, Udalak eta Osakidetzak duten eztabaidan "ahalegin guztiak" egingo dituztela dio Angulok

Ospitale berriaren dena diseinatu eta dago zerbitzu horrek eskaintzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko lehen ospitalea izateko".

Bestalde, zerbitzu berrien harira, Angulok esan du denbora aurrera joan ahala ospitalean bestelako espezializateak eskaintzea aztertuko dutela; esaterako, onkologia patologien arreta.

APARKALEKUAREKIN BUELTA

Udalaren eta Osakidetzaren arteko eztabaidaz ere hitz egin du; hain justu, ospitale inguruko aparkaleku faltaren harira, aparkalekuok egitearen ardura nori dagokion erabakitzearena. Lehenik eta behin, herritarrei eskatu nahi izan die garraio publikoa erabil dezatela; izan ere, modu horretan, ibilgailu gutxiago piletuko dira ingurunean. Horren harira, aipatu du "ezinezkoa" dela autoan datozen guztien beharra asetzea eta garraio publikoaren gainera azterketa "sakona" egin behar dela.

Osakidetzaren eta Udalaren arteko eztabaidaz esan du bakoitzari dagokionaren barruan, alde biek "ahalegin guztiak" egingo dituztela arazoa konpon dadin. Anguloren esanetan, "Osakidetzak ahal duen neurrian lagunduko du; ospitale berriaren langileendako doazen 127 plaza, Fagorrek utzitako eremua eta inguruetakoa aparkalekuak daude. Hortik aurrera, ez dagokiguri irtenbideak bilatzea".

Jose Luis Angulo > Ospitaleko gerentea

"Obesitatearen Klinika zabaldu dugu, lodi dauden umeendako"

M.B. > ARRASATE

Joan den astean osasunaren nazioarteko eguna izan zen. Aurtengo gaia hirigintza izan da. Debagoieneko ospitaleko gerente Jose Luis Angulok garraio publikoa erabiltzearen eta ohitura osasungarriak izatearen garrantzia azpimarratu du. Azken horren harira, jakinarazi digu umeendako Obesitatearen Klinika zabaldu berri dutela.



M.B.

Zelan eragiten dio hirigintzak osasunari gurean?

Bi ikuspegitik fokatu behar da gaia: batetik, hiriek eta Arrasate bezalako herri handi batek duten eraginari erreparatu. Argi dago ibilgailu pribatuaren erabilerean aurrean garraio publikoaren aldeko apustua egin behar genukeela. Kutsadura ekidin eta zirkulazioa samurragoa izango litzateke.

Bestetik, orokorragoa den bigarren ikuspuntu bat dago; hain justu ere, ariketa fisikoa egitearen eta elikadura egokia izatearen garrantzia. Azken horren harira, obesitatearen kontrako ahalegin berezia egiten ari gara; bereziki, umeen obesitatearen kontra.

Nola egiten duzue lan?

Ospitalean Obesitatearen Klinika moduan ezagutzen dena sortu dugu. Eskualdeko ume lodi guztien kontro-

la eramaten dugu hortik; gurasoekin batera jaterakoan ohitura osasungarriak izan dezatela lortu nahi dugu, baita ariketa fisikoa egin dezatela ere. Klinika horrek herritarren eta medikuen arteko komunikazio atea zabaldu du.

Zelan funtzionatzen du?

Gurasoekin biltzen hasi gara, garrantzitsua da eta haien parte-hartzea izatea. Umeek egingo dute gurasoekin esaten dietena. Batzar horietan ohitura osasungarrien gainera aholkuak eman dizkiegu; haiekin kolesterola, diabetesa edo bestelako gaixotasunak ekidin daitezke.

BOULEVARD MODA zu udaberria zara

Jantzi gurekin denboraldi honetan eta irabazi **2 lagunentzako bidaiak Japoniara eta 10 personal-shopper zerbitzu***.

Parte hartu **apirilaren 12tik 24ra** zure erosketa-txartelekin Nodal plazako standean.

Estiloz beteta, ZUTAZ beteta.

Deja que te vista
Personal Shopper - Asesoría de imagen

el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

* Modan eta joeretan aditua, bezeroari erosketak egitean lagun egiten diona, bezeroarentzat jantzi egokienak zein diren aholkatzeko. Bezeroak, horrela, etekin handiena ateratzen die denborari eta diruari.

www.el-boulevard.com Bézzeroarenganako Arreta: 945 155 440



Aitor Bezares batzarkidea, Martin Arriolabengoa eta Asier Agirre alkatea ezkerrean, eta eskumaldean Pedro Lasagabaster, Pedro Iturbe eta Enara Minguez, Gasteizen. E.M.

Asier Agirrek ukatu egin zuen Udalaren parte-hartzea AHTren gaineko bozketan; fiskalak 9 urteko inhabilitazioa eskatu zuen Agirrerendako eta defentsak, absolutzioa

EPAIKETA > AHT-REN GAINEKO KONTSULTAGATIK

Aramaioko alkatearen aurkako epaiketa, sententziaren zain

EDU MENDIBIL > GASTEIZ

2007ko irailean AHTren gainean herri galdeketa egiteagatik epaitu zuten Asier Agirre Aramaioko alkatea eguaztenez Gasteizen. Prebarikazioa eta desobedientzia leporatuta, bederatzita urteko inhabilitazioa eskatu zuen fiskalak Asier Agirrerentzat. Defentsak, aldiz, absolutzioa eskatu zuen. Epaiketa sententziaren zain geratu da.

Luze joan zen epaiketa; bost ordu eta erdi inguru eman zuten abokatuek, lekukoek eta ikusleek Gasteizko zigor arloko 2. zenbakidun epaitegian. Agirrez gain, Aramaioko Udaleko pare bat langilek,

zenbait herritarrek eta hainbat auzo alkatek deklaratu zuten.

GOBERNUAREN DEBEKUA

AHTren gaineko galdeketa 2007ko irailaren 28tik 30era egin zuten Aramaion. Aurreko agintaldian hainbat herritarrek galdeketa egitea eskatu zioten Udalari, baina Udalak atzera egin zuen orduan, Espainiako Gobernuaren aginduz. 2007ko udal hauteskundeak irabazi ondoren, Agirrerengana zuzendu ziren zenbait herritar, eta galdeketa gaiari berriro heltzeko eskatu. 2007ko iraileko galdeketa 673 boto jaso zituzten, horietatik 654 trenaren aurkakoak.

Egueneko deklarazioen araberak, argi geratu zen galdeketa herritarrek eurek sustatutakoa izan zela, auzo alkateak aukera

ESANAK

"Epaiketa politikoa izan da; herritarrek aukera izan beharko lukete horrelako proiektuen aurrean iritzia emateko"

Asier Agirre > Aramaioko alkatea

tzeko bozketak aprobetxatuta. Agirrek berak eta auzo alkateek azpimarratu zuten, Udalak ez zuen diruz edo baliabidez lagundu trenari buruzko galdeketa. Bestalde, Agirrek zera esan zuen Espainiako Gobernuko ordezkari Paulino Luesmaren gainean: astelehenean (urriaren 1ean), behin galdeketa amaituta, izan zuela debeku horren berri, Luesmak bidalitako faxa orduan erakutsi zioten-eta. Luesmaren faxa irailaren 28an (egubakoitza) iritsi zen Aramaioko udaletxera, 19:50ean, eta ordu-rako ez zegoen udal langilerik udaletxean.

Fiskalak zalantzan jarri zuen Agirreraren bertsioa eta zera gaineratu zuen: sinesgaitza egiten zitzaiola Agirrek debekuen berri jaso ez izana, domekarako hainbat komunikabidek horren gainean jardun zuten-eta. Hain zuzen ere, ETBk asteburu hartan emandako informazioa eta Agirrek ETBri egindako adierazpenak erabili zituzten frogatza. Fiskalaren arabera, Udalak inkesta egiteko akordioa hartu zuen, boto-kutxak utzi zituen bozketarako, boto zenbaketan hartu zuen parte eta, horrez gain, osoko bilkuren aretoa utzi zuten bozketarako. Horrelakoak ohikoak direla esan zuten lekukoek eta Agirrek berak. Izan ere, aipatutako egunean Ibarako hiru auzo alkateak ere aukeratzen zituzten eta aurretik ere pleno aretoan egin izan dute bozketak hori. Bozketak nahiko modu informalean, errolda erabili barik egiten dituztela deklaratu zuten Untzilla eta Azkoagako auzo alkate izandakoek. Herritarren eskariari Udalak babes politikoa ematea baino ez zuela eman adierazi zuen Agirrek.

LOTURARIK EZ

Iñigo Iruin defentsak abokatuak esan zuenez, Udalak 2007ko irailaren 5ean onartu zuen galdeketa egiteko mozioa, baina bertan ez zuten zehaztu ez zelan, ez noiz, ezta zeinek egin behar zuen ere: "Gauza bat da trenaren aurkako plataformaren nahia eta beste bat hemen epaitzen ari dena: Agirreraren jarduna". Prebarikazioan erortzeko lau baldintza bete behar direla eta auzi honetan bakarrik betetzen dela (Agirre funtzionario publikoa izatea, alegia) gehitu zuten. Galdeketa herriaren eskaera izan zela ere esan zuen eta hori frogatzeko hor daudela horren alde jasotako sinadurak (66etik gora) eta auzo alkateen eskaera, alkateari herri galdeketa egiteko eskatuz. Guardia Zibilaren txosten bat ere aipatu zuen Iruinek, urriaren 2an egindakoa; guardia zibilek ezin izan zuten frogatu Udalak galdeketaekin loturarik izan zuenik. Epaiketa politikoa izan dela eta herritarrei hitza kentzea salatu zuen Agirrek Gasteizen.

Resu Abasolo > Kurtzebarri BHiko tutorea

"Teknologia berrien praktika onak erakutsi gura ditugu"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Teknologiaz hezi munduan hazijardunaldiak antolatu ditu Goieskolak. Datorren astean egingo dituzte, apirilaren 21ean eta 22an, Arrasateko Kulturaten.

Beharrak eskatuta antolatu dituzte jardunaldi horiek?

Goieskolak badu ohitura, tar- teka, gai berrien inguruan aditu- en beharra ikusi dugunean,

horrelako jardunaldiak antolatzeko, batez ere hausnartzeko, eta teknologien inguruan hezkuntzan ere badago horren beharra.

Norendako antolatu dituzte?

Irakasleendako eta atal bat baita gurasoendako ere.

Ikasgelak aldatu egingo dira?

Aldatu dira dagoeneko. Esko- lak aspaldi murgildu dira tekno-

logia berrien munduan. Gertatzen dena da abiadura handia hartu duela horrek, tartean badi- rela praktika on asko, egunero- kotasunean oso ondo integratu- ta daudenak, eta horiek ezaguta- razi gura ditugu. Baita horrek ze onura dakarren, ze antolaketa era den egokiena modu horretara funtzionatzeko eta irakasleok ere ze aldaketa egin behar ditugun.

Irakasleengan ere zalantzak eta kezak sortu dituzte teknologia berriek. Onartu behar dugu batzuetan ikasleek aurre hartzen digutela arlo horretan, eta hobeto moldatzeko hainbat laguntza eta praktika ikusiko ditugu jardunaldietan.

Gurasoen inplikazioa ere beharrezkoa ikusten duzue?

Gurasoei begira ikusten genuen muturreko erreakzioak



Resu Abasolo.

JULEN IRIONDO

zeudela sare sozialen inguruan, adibidez: edo beldurratik debekatzea edo inolako kontrolik gabe erabiltzen uztea. Eta Facebook eta antzerako sare sozialen onurak

ere aipatu gura ditugu, batez ere hezkuntzarako ze onura dituzten, zelan erabili eta heziketarako ze erabilpen duten gurasoei erakustea garrantzitsua iruditu zaigu.

Aipatu dituzun praktikak webgunean jarriko dituzue?

Bai, gure ibarrean erabiltzen diren praktikak jarriko ditugu guztien eskura. Adibidez, ikasleek egindako blogak, geografia ikasteko Google Earth programaren erabilera edo ikasleen talde- lan puntualak. Helbidea da: www.goieskola.net.

Besteak beste, web 2.0 tresnen inguruan hitz egingo dute jardunaldietan.

Bai. Jordi Adell etorriko da gai horretaz berba egitera, baina hizlari eta adibide gehiago ere izango dira.

HEZKUNTZA > AZOKA

Lanbide Heziketaren gaineko azoka gaur eta bihar Arrasaten

Debagoieneko ikasle, langabe eta langileei formazioa eta eskualdeko eskaintza aurkeztuko diete Kulturategiaren klaustron

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Lanbide Heziketari eskaintako astea bukatzeko II. azoka egingo dute Arrasateko Kulturategiaren klaustron. Hain zuzen ere, gaur 10:00etatik 18:00etara eta bihar 10:00etatik 13:00etara. "Formazioak garrantzia duelako" antolatu du Mankomunitateak Debagoieneko Lanbide Heziketako azoka. Bi egunetan ibarreko ikasle, langabe eta langileei formazioa eta Lanbide Heziketaren eskaintzen dituen aukeren berri emango diete. Oro har, eskualdeko eskaintza aurkeztuko dute.

ERAKUSMAHAIK

Debagoieneko zortzi ikastetxek jarriko dituzte euren erakusma-

haiak Kulturategiaren: Oñatiko Gestio Heziketak eta Zuazola Larrana institutuak; Bergarako Mariaren Lagundiak eta Miguel Altuna institutuak; Arrasateko

DATUA

8

IKASTETXE

Ibarreko Lanbide Heziketako zortzi ikastetxe egongo dira azokan. Gainera, hizkuntza akademiak, enplegu zerbitzuak eta Mankomunitateko Garapen Agentzia egongo dira.

Arizmendi ikastolak eta Goi Eskola Politeknikoak; Aretxabaletako Lanbide Eskolak; eta Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroak. Gainera, Bastida eta Ika si akademiek, udaletako enplegu zerbitzuek, Mankomunitateko Garapen Agentziak eta Bizikasi, Elkarheitzan eta Hezkuntzaren Aldeko Mundu-Kanapian erakundeek ere parte hartuko dute. Bestalde, Jose Luis Elortza Muxikak *Lanbide Heziketa. Zer da? Zertarako?* hitzaldia egingo du Kulturategiaren klaustron 11:00etan.

HITZALDIK

Bestalde, astean hitzaldi zikloa egin dute. Langabeziari aurre egiteko har daitezkeen bideei buruzko hitzaldian 40 bat pertsona egon ziren. "Pozik gaude erantzunarekin. Intereseko gaiak direla ikusi dugu", esan digu Mankomunitateko ordezkari Amaia Irizarrek.



luz Kulturategiaren egin zuten Lanbide Heziketaren azoka.

GOIENKARIA

OGASUNA > DEIALDIA

Errenta aitortpena eukaraz egiteko kanpaina abiarazi dute Debagoieneko udalek

Bailarako herrietan etxerik etxe banatu dituzte eskuorriak, eta informazio orokorraz gain hiztegi txiki bat ere jaso dute

M.B. > HERRIA

Debagoieneko udalek errenta aitortpena eukaraz egiteko kanpaina jarri dute abian. *Nora begira zaude? Errenta aitortpena egizu euskaraz!* da kanpainaren

leloa. Etxerik etxe banatu dituzte eskuorriak; informazio orokorraz gain, hiztegi txiki bat ere badakar eskuorriak.

LAU MODU EUSKARAZ

Errenta aitortpena egiteko lau modu daude eta denetan erabil daitezke euskaraz. Autolikidazio proposamenean, etxean jasoko du zergadunak Ogasunak bidalitako proposamena. Hura ontzat emanez gero onartzeko hiru bide ditu: telefonoz, Internet bidez edo Bergarako bulegoan.

Aitorpen telematikoa egin gura dutenek finantza erakunde-

engana edo aholkularitza zerbitzuengana joan beharko dute. Bestalde, errenta aitortpena egiteko inprimakiak estankonetan eros daitezke.

EKAINAREN 25ERA ARTE

2009ko ekitaldirako kanpaina bihar hasiko dute, ekainaren 25era arte. Hitzorduak eskatu edo kontsultak egiteko: deitu 902 100 040 zenbakira, Bergarako Ogasun bulegora joan edo www.gipuzkoa.net/ogasuna helbidean sartu. Etxean jasotako autolikidazioak hilaren 14tik onar daitezke.

AZPIEGITURAK > ERABAKIA

AHTren Bergarako ibilbidea ez aldatzea adostu du Jaurlaritzak

Lamiategi elkarteko eskaria alde batera laga dute "4 urteko atzerapena ekarriko lukeelako"

M.B. > BERGARA

AHTren Bergarako ibilbidea ez aldatzea erabaki du Foru Aldundiak. Hortaz, Abiadura Handiko Trenak Bergaran eragingo lukeen ingurumen kaltea txikitze eta azpiegitura paisaia egokiago txertatzeko Lamiategi auzo elkarteak egindako proposamena bertan behera utzi du.

Iñaki Arriola Garraio sailburuak gaineratu du ez dutela proiektua atzera bota "desegokia" delako, AHT eraikitze

ESANAK

"Ez gaude ados, baina lanean jarraituko dugu ingurumena ahalik eta gutxien kalte dezaten"

Luis Fernando Mendibil > Lamiategi elkarteko kidea

lanetan 4 urteko "atzerapena" eragingo lukeelako baizik. Bestalde, gaineratu du Lamiategi elkarteak egindako eskaera aintzat hartzeko "ahalegin guztiak" egin dituztela.

Erabaki horrekin ez daude ados Lamiategi elkarteko kideak. "Ez dugu ontzat hartzen Jaurlaritzaren erabakia, baina lanean jarraituko dugu ingurumena ahalik eta gutxien kalte dezaten. Eskatuko dugu, besteak beste, tunel artifizialen bidez AHTren trazatua ahalik eta gehien ezkutatzea", esan digu Lamiategi elkarteko kide Luis Fernando Mendibilek.

URUBURU II

Bestalde, Adifek bukatutzat eman du Eskoriatza eta Aramaio lotzen dituen Uruburu II tunela. 460 metroko luzera du, eta bi bide. AHTren Eskoriatza-Aramaio tartea 5,5 kilometro ditu, eta lau tunel: Uruburu I, Uruburu II, Mazmela eta Induspe.

JENDARTEA > ERLIJOA

Bergarako eta Antzuolako parroko izateari utziko dio Juan Kruz Mendizabalek

Jose Ignacio Munillak Pastoraltzako bikario izendatu du Mendizabal, eta Donostiara doa



Juan Kruz Mendizabal. GOTZAITEGIA

GOIATZ ARANA > BERGARA

Eguenean, atzo, hartu zuen Juan Kruz Mendizabalek pastoraltzako bikario kargua Gipuzkoako Gotzaitegian, Donostiako Gros auzoan. Bikario nagusiaren kargua Joseba Gonzalezek hartu zuen eta modu horretara osatuta gelditu da Donostiako elizbarrutiko lantaldea.

"BURUA, LEHENGO LEPTIK"

Apirilaren 10ean egin zion proposamena Jose Ignacio Munillak Juan Kruz Mendizabali, gotzainak Bergarara egindako bisitan. "Lehenago leptik daukat nik burua, eta uste dut horrekin duela zerikusia ni aukeratu izanak, egoera honetan kontraste bat izan naitekeelako", esan dio Mendizabalek Goienari. Era berean aitortu du "urduri" dagoela eta "kokatzen"

dabilela egunotan, "aldaketa handia" izan delako epe laburrean.

Kargua onartuta, Donostiara joango da bizi izatera Juan Kruz Mendizabal *Kakux* udan; Bergaran jarraituko du ordu arte. Bizitokia aldatzearekin batera, Bergarako Santa Marina eta San Pedro parrokiatiko, Elosu auzoko eta Antzuolako parroko izateari utzi egingo dio. "Beste bat, gutxienez, aurkitu beharko dugu zeregin horietarako", adierazi dio ormaiztegiarrak Goienari.



zabalik

Iñaki Peña

Amerika europartzen

XIX. mendeko amaieran Von Bismarck prusiarrak historiako lehenengo osasun asistentzia publikoaren modukoak martxan ipini eban. Garai hartatik AEBak hainbat esparrutan gailentzen joan dira Europaren ganetik, eta tartean osagile eta ospitalerik hoberenetakoak han dituzte.

Baina, aldi berean, beste herrialde mendebaldar batzuekin konparatuta haur heriotza-tasa altuagoa eta bizitza-itxaropen baxuagoa deuko. Izan be, estatubatuarren %15ak ez deuko osasun asistentziarako aukerarik, 45 milioi pertsona inguruk. Horreri buelta emoteko dator Obamaren erreforma, hainbeste hauts harrotu dauana, 2014rako osasun eskaintza unibertsala aurreikusten dauana (?).

Bien bitartean, Europa amerikartzen doa. 1948an Britainia Handian National Health Service eredu garria sortu eban eta atzetik joan ziran estatu frantziarra urte haietan eta espainiarra 1963an.

Ordutik aurrera europar sistemak sendotzen joan ziran, 1984an Osakidetza eta 1990ean Osasunbidea sortu zituzten, 2000n Jospinek osasun erreforma handia gidatu eban eta urte hartan OMEk frantziar sistema munduko onentzat jotzen eban, japoniarra, suediarra eta herbeheretarraren aurretik.

Halandabe, 1980ko hamarkadan britainiar eredu krisialdian sartu zan, eta tirabira handiak egon ziran Thatcher eta laboristen artean. Geurean, danon abusuen ondorioz aspalditik datorrena Bengoa eta Kutz sailburuak orain plazaratzen dabilz, krisialdi ekonomiko globalak okerragoturik.

Murrizketa gero eta handiagoak eta pribatizazioa datoz, baita Ipar Euskal Herrira be. Ganbehera geroz AEBetan goruntz datozen bitartean.

"AEBetan %15ak ez deuko osasun asistentziarako aukerarik"

usteak uste

Mirian Biteri

Nire babesa Asier Agirreri

Eguaztenean Aramaioko alkatearen aurkako epaiketa hasi zen, Arabako Probintzia Auzitegian, 2007an AHTren gaineko galdeketa egin zelako. Lotsagarria da herriari hitza emateagatik Asier Agirre epaitzea; are gehiago, horrelako azpiegitura erraldoi baten gaineko galdeketa denean. Zoritxarrez, asmo politikoa duen epaiketaren aurrean gaude ostera ere; horren harira, ez dugu ahaztu behar trenaren kontrako ekimenean parte hartzeagatik epaituak izan direla lagun asko; horietako batzuen auzia, gainera, Auzitegi Nazionalera bideratu dute.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

Auzi bidegabea

Pello Urzelai

www.berria.info/blogak/pello/

Ez zuen gertatu behar izan. *Egunkaria* ez zuten itxi behar izan. *Egunkaria*-ko inor ez zuten atxilotu eta torturatu behar izan. Epaiketa bera ez zuten egin behar izan. Horixe ondorioztatu ahal da Auzitegi Nazionalako Zigor Salak *Egunkaria* auziaz emandako epaia irakurrita. Auziak berak ez zuen gertatu behar, baina, aitzitik, zazpi urte luze iraun du -eta oraindik ez da amaitu, epaia finkoa ez delako eta auzi ekonomiko konpondu gabe dagoelako-, eta denbora horretan neurtu ezin den kaltea egin du.

Epaia argia da, koplarik gabekoa. Lehenik eta behin, *Egunkaria* itxi izana auzitan jarri du. Tribunalaren ustez, Espainiako Konstituzioan ez zuen helduleku zuzenik, eta Zigor Kodearen 129. artikuluz baliatzeak ez zuen behar besteko oinarriarik. Epaiak argi utzi du *Egunkaria*-ren argitalpenarekin deliturik egiten ez

zenez -eta horrela frogatu da ahozko epaiketan-, ez zela eten behar haren argitalpena.

Akusazioak, azken batean, espekulazioak baino ez ziren. Kritika gogorra egin die epaimahaiak akusatzaileei. Zuzenean Dignidad y Justicia eta AVT elkarteei, eta, zeharka, benetako akusatzaileari, Guardia Zibilari. Adibidez: "Akusazioetan, atzekoz aurrera egin dute indukzio prozesua. Lehenbizi, erabaki da zein den ondorioa, eta esan da, oinarririk gabe esan ere, ondorio hori eztabaiaezina dela; gero, seinale, zantzu eta aztarna bila hasi dira; eta, azkenik, arbuiatu egin da ondorioarekin bat ez datorren ezein esplikazio". Kritika horrek berebiziko garrantzia du *Egunkaria* auziaz haratago, Barne Ministerioko akusatzaileen jarduteko modua bera auzitan jartzen duelako. *Egunkaria* auzia kate luze bateko kasu bat gehiago baino ez baita.

(...)

Epaiak absolutzioa ekarri du, eta auzi hau erabat bidegabea zelako uste sendoa berretsi du. Baina, berez, ez du bermatzen bidegabekeria amaitzea, ezta horrelako auzirik ez errepikatzea ere.

koplak

Andere Arriolabengoa

'Euskaldunon Egunkaria' libre?

Denbora pasa ta azkenean ospatu da juizioa, 7 urte pasatu ondoren zer da absolutzioa.

Esku garbien esku-hartzea ez al da izan satira, duintasuna ta justizia non gelditu ote dira.

Audientzia Nazionalako lanean erreparatu, lehendabizi akusatuta gero al bada frogatu.

Askorentzako nahiz prozesu hau izan den krudel ta grabe, zentzugabeko epaiketara tamalez ohituak gaude.

Epaia jakin orduko askok egin du barre algarra, absolutzioa dute baina justiziarik ez al da.

Nahiz gaur agerian gelditu den haien sistema ustela, txarrena da hurrengoan ere berdin gertatuko dela.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAK
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriaketa Goienka2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Ziortza Martin, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAK 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Postea: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurilaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Travel Club? Formalidade gutxi

Jose Iturrospe
Bergara

Travel Club-en gertatutako kasua kontatzen noa. Joan zen urteko iraileko laburpenean, esan zidaten helbide elektronikoa bat uztearren 50 puntu oparitu-zidatela. Baita egin ere.

Hurrengo hilabetea heldu zenean eta 50 puntuak agertzen ez zirenez, deitu nuen eta "arazoak ditugu eta datorren hilabetean hor izango dituzu". Horrela hilerro, denetiko erantzunak jasota: "Hau eskuz egin behar da, programak uzten ez digulako". "Ezin dugu orain egin, baina hurrengo hilerako gehituko dizugu". "Promozioa bukatutakoan gehituko dizkizugu". Denetan intzidentzia idatzita gelditzen zen.

Deitu nuen baten esan zidaten gutun bat bidaltzea nahi banuen, fax bidez izan behar zela "beste modurik ez zegoela". Eta horrela egin nuen.

Denbora pasa ahala, eta erantzunik jasotzen ez nuen, esan zidaten posta elektronikoz egiteko bidea ere banuela. Eta berriro idatzi nien.

Martxoko laburpena jaso dut eta oraindik puntuak ez dira agertzen. Ezta erantzunik ere.

Eta gutxi balitz, orain Interneten, Travel Club-ek duen orrialdera sartu ezinda nabil. Kasualitatea? Ez nuen espero hain formalidade gutxi ezta adarra jotzeko halako modurik.

Eskubide guztiak

Pedro Maria Martinez de Lagos

(Herria 2000 Eliza, Euskal Herriko Apaizen Koordinakundea eta Kristau Elkarte Herritarren Koordinakundea) Bilbo

Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarren, Euskal Herriko Apaizen Koordinakundeari eta Herria 2000 Eliza aldizkariaren izenean idazten dizugu, hots, Nazaretoko Jesusekiko leialak izan eta Haren jarraitzaile izaten ahalegintzen garen Euskal Herriko Elizaren sektore baten izenean.

Luze eta zabal hitz egin genezake gure Herria eta estatu espainiarra eta frantziarra aurrez aurre jarriarik dituen auzi-bideaz, alde guztietatik sortu eta hainbeste urtetan iraun duen eta oraindik irauten duen indarkeriaz, gatazka luze honek eragindako biktima errugabeaz, alde batean zein bestean jasan beharreko sufrimenduez, baktezaren alde gauzatu diren eta gauzatu beharko diren saiakereaz, egoera

honetan pertsona, talde eta instituzioek dugun erantzukizunaz. Horretaz guztiaz hitz egiteko prest gaude, baina ez da hori gaurko gure gutun honen arrazoi zehatza.

Kezkatu egiten gaitu eta min ematen digu jendartearen zenbait sektoretan gertatzen ari den gorroto eta mendeku giroak, batez ere kartzelan dauden euskal presoek eta beren familiei buruz. Argi dago jarrera horrek ez garamatzala arazoaren konponbidera, eta ez duela bidea urratzen goizago ala beranduago burutu beharko dugun eginkizunerako; hots, askatasunean adiskidetzeara.

Ez ditugu hemen aipatuko nazioarteko ala nazio mailako testu juridikoak; Elizaren ala beste elkarte erlijioso, sozial edo politikoen irakaspenak ere ez. Baina ezin dugu gogoratu gabe eta gauzatzen saiatu gabe utzi Lukasen ebanjelioan (Lk. 4, 18-19) agertzen den harako hura, Nazaretoko Jesusen eginkizun bezala agertu ere: Jaunaren izpiritua nire gainean dago, berak nau bidali gatibuei askatasuna eta behartsuei berriona adieraztera, itsuei ikusmena hots egitera eta zapalduak askatzera, Jaunak ongina ahaztuko duen urtea hots egitera. Eta honekin batera, gogoratu bere aholkua, ebanjelio berdinean zerbait aurrerago jasoa: Zuek maitatu etsaiak, egin ongi eta eman maileguz ordainari begiratu gabe (Lk. 6, 27-35).

Hauxe da gutun hau idaztera bultzatzen gaituen espiritua eta letra, zuk zure ahalbidean dagoena egin dezazun, kartzelan daudenen eta beren senideen giza eskubide guztiak errespetatuak izan daitezten. Ez gara legeriei buruz tematzen. Gure deia, gure salaketa, gure gogoeta, gure eskaera eta, areago, gure exijentzia, legezko-tasunetik haratagokoa da, ez baitaioz beti bat legezotasuna eta justizia.

Eskakizunak zehaztu aldera, beste zenbait inguruabarren artean, honako hauek azpimarratzen ditugu:

-Taldea honetako pertsona hauen guztien duintasun eta eskubideekiko begirunea, eta estatu espainiarraren eta frantziarraren ankerkeriaren etetea exijitzen dugu.

-Zenbait kartzelatan ezarritako bakartze erregimena, gaixotasun larriak dituzten presoak kartzelan edukitzea, kondena beteta dutenak -zeintzuei biziarteko kartzela aplikatzen zaien- ala kondenaren hiru laurdenak beteak dituztelako behin-behineko askatasunean izan behar luketenak kartzelan neurriak, berehala, ezabatzea nabarmendu nahi dugu.

-Bai presoek eta bai beren senideek pairatzen duten

sakabanatze eta urruntze politikaz bukatzea hots egiten dugu.

-Presoen eta beraien familien giza eskubideak urratzen dituzten praktikak, hemen aipatutakoak zein beste era batetakoak izan, ezabatu beharra azpimarratu eta exijitzen dugu.

Azkenik, bada zein izen jarri ere ez dakigun beste kontu bat; hots, presoak ikustera doazen bai familiartekoei eta bai bisitariari, bisean-biseko bisitak egiteko asmotan joanez gero, ezartzen zaizkien praktika iraingarriak ukitutako miaketak jasatera behartuz (bitarteko tekniko ezberdinak erabiliz ezin dira praktika horiek zuzitu) eta neurri horiek onartzen ez dituztenei edozein motatako bisitak egin ahal izateko hilabeteetako debekua zigortzat jartzea.

Ez genuke nahi izango dituzun eginkizun askotarako zure arreta galaraztea. Har ezazu, beraz, luzatzen dizugun eskua eta ditugun sinesteei leialak izateko ahaleginetan, gure kezka eta exijentziarik sakonenak eta presakoenak jakinarazi nahi dizkizugu, justizia, askatasun eta adiskidetzeari bideak ireki ahalko dituen egoera gizatiarragoa bideratzeko lagungarri izatearen izenean.

Gezurrik ez

Pedro Sologaitza, Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jabier Arana

(Oñatiko LAB Helduak)
Oñati

GOIENKARIAko otsailaren 5eko idatzian, Lourdes Idoiaga alkatearen jokabidea salatzen genuen Gizarte prestazioak mantendu egingo zituela esan, eta gero kontrakoa egin duelako elbarritasuna duten pertsona askorekin, ibilgailuen 2010eko zergarekin konprobatu ahal izan dugunez, eta gainera zoritxarrez, jarraipena izango dute beharpen hauek ondoren ikusiko dugun moduan.

2010eko udal aurrekontuan eta, zehazki, Gizarte batzordeari dagokion atalean sartuko gara orain. Ondo dakizuen bezala, guk, LABeko Helduak taldekoak, ezin dugu parte hartu batzordean, alkateak berak debekatu zigulako, baina nahiz eta egoera honek asko mugatzen duen gure informazio ahalmena, beti saiatu izan gara eta orain ere saiatuko gara falta dugun informazio hori eskuratzen.

Eta horrela lortu ahal izan dugu 2009 eta 2010eko diru-partiden zerrenda eta berriz ere denon kalterako, gauza bat esan eta beste bat eginez, gezurretan ari da Lourdes Idoiaga alkatea. 2010eko aurrekontuaren

balorazioa egiterakoan hauxe zioen hitzez hitz urtarrileko *Kontzejupetik*-en 191. zenbakian: "Krisi garaian, behar edo premia handiena duten gizarte sektoreei lagun behar diegu. Beste arlo guztietan behera egin du aurrekontuak, baina Gizarte Zerbitzuetan mantendu egin dugu, eta zenbait partida igo ere bai. Gizarte Zerbitzuen atalean %7,36ko jaitsiera baldin badago, San Martin egoitzako eraberitze lanak amaitu direlako da". Horrela idatzita dago, baina egia al da esaten ari dena? Orain ikusiko dugu.

Har dezagun diru-partiden zerrenda eta berak dioen moduan San Martin egoitzako lanak alde batera utzita, joan gaitezen destino garrantzizkoenen atalak ikustera eta konturatuko gara esaten ari garenaz.

Igo diren arloak:
-Etxetik etxekako zerbitzua: 2009an, 600000,00; 2010ean, 612000,00; DIF.2010-2009, 12000,00; %2010/2009, 2.

-Pobrezia: 2009an, 66306,24; 2010ean, 68222,26; DIF.2010-2009, 1916,02; %2010/2009, 2,89.

Jaitsi direnak:
-Jarduera Sozialak (Drog.): 2009an, 71760,00; 2010ean, 59772,17; DIF.2010-2009, -11987,83; %2010/2009, -16,71.

-Emakumeentzat Ekintzak: 2009an, 17241,17; 2010ean, 12000,00; DIF.2010-2009, -5241,17; %2010/2009, -30,40.

-Diru-laguntza Bereziak: 2009an, 24650,00; 2010ean, 21872,40; DIF.2010-2009 -2777,60; %2010/2009, -11,27.

-Hainbat Diru-laguntza: 2009an, 13394,53; 2010ean, 11155,46; DIF.2010-2009 -2239,07; %2010/2009, -16,72.

-Desbabestuen Egoerarako Diru-lag.: 2009an, 27905,28; 2010ean, 23719,49; DIF.2010-2009, -4185,79; %2010/2009, -15.

-San Martin Egoitza: 2009an, 330313,40; 2010ean, 300000,00; DIF.2010-2009, -30313,40; %2010/2009, -9,18.

-San Martin Egokitza. Diru-lagun.: 2009an, 45000,00; 2010ean, 8000,00; DIF.2010-2009, -37000,00; %2010/2009, -82,22.

-Jubilatu-etxeko gastuak eta Diru-lag.: 2009an, 34976,72; 2010ean, 29129,89; DIF.2010-2009, -5846,83; %2010/2009, -16,72.

Hauetaz gain badaude Gizarteko beste arlo batzuk jatsiera izan dutenak eta luzatu egingo litzatekeelako ipini ez ditugunak eta baita beste batzuk sartu gabe geratu direnak ere.

Orduan, kontua ez da Lourdes Idoiaga alkateak ikusarazi nahi digun bezala Gastu Sozialari eman zaiola lehentasuna; hori gezurra da!

Bi partida bakarrik igo dira: Etxetik etxekako zerbitzua eta Pobrezia. Beste partida guztiak jaitsi egin dira, eta San Martin egoitzako obren partida kenduta ere 2010eko aurrekontua %5,39

jaitsi egiten da; beraz, ez dadila etorri alkate andrea jendea manipulatzera.

Hemen gertatzen dena da, gauzak estutzen direnean handimandi dirudun hoiei kentzen hasi beharrean, txikiari, estuasunean dabilenari kentzen hasi dela Lourdes Idoiaga alkatea, Gizarte Zerbitzuko aurrekontuak demostratzen digun bezala.

Gezurrarekin estali nahi izan du errealtate gordina, baina LAB Helduak taldekoak salatzen segituko dugu aurrerantzean ere Gizarte arloan gerta litezkeen erasoak.

Baina gure lana ez da salaketa egitea bakarrik, nahiz eta hau ere egin beharrekoa izan.

Kalitatezko Zerbitzu Soziala sistema publikoaren barruan goiburua duen hitzaldia antolatuko dugu Oñatin eta jakinaraziko dugu aurrez noiz eta non emango den.

Beraz, adi egon eta animatu etortzera.

Zazpi hilabete eta erdi

Jesus Markaide
Arrasate

Herritar batek informazio bat eskatu zion Udalari: zinegotzi batek kargu bat utzi zuen eta berdin kobratzen segitzen zuen, kargua utzi ez balu bezala, eta herritarrak jakin gura zuen zerk eragin zuen hori hala izatea. Udalak 7 hilabete eta erdi behar izan ditu erantzuteko. Baina ez ezazue pentsa kontu iluna denik hau, ez ba... Izan ere, gutuna hain ondo gorde zuten, ez zuten aurkitu epailearen agindu bat jaso zuten arte hari erantzuteko eskatuz. Hala ere, erantzunean, argi eta garbi esaten dute akats "inboluntarioa" izan zela, boluntarioak direnean are gehiago igartzen da-eta.

Bai, bai, herritarrak bere poltsikotik ordaindu behar izan ditu abokatua eta prokuradorea, erantzun diezaioten.

Gutunean, gure edil nagusiak sinatua dagoena, Galparoso andreak, inork ez dio barkamenik eskatzen herritarrari eta ez diote eskaintzen izan dituen gastuak konpentsatzea.

Ez da eskertzen gertakari hau Udala jakinaren gainean jarri izana dagokion PPKK (Protokolo Para Kontestar Kartas) landu dadin, PENEK (Protokolo Estrategico de Nevadas Enormes) izandako arrakastaren ostean, eta datorren udazkenerako izango den POLLAREkin (Protokolo Operati-vo para Lluvias Abundantes), PEDO (Protokolo para Encontrar sitio Delante del Ospital), ahaztu barik, horrek molatzen du-eta.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Pozik agertu da Txema Auzmendi jesuita eta kazetaria, *Egunkaria* auzian auzipetu eta absolbitua izan dena. Pozik, "herriaren zati handi bat eta euskaldungoaren zati nagusia" atzean izan dutelako eta haiek eman dietelako "argia, indarra, animua". Egindako kaltea zelanbait konpondu egin beharko litzatekeela uste du, baina horretan "ez dela oso itxaropentsu".

Txema Auzmendi > 'Egunkaria' auzian auzipetua

"Egindako kaltea zelanbait konpondu egin beharko litzatekeela uste dut"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Hautsak harrotu ditu *Egunkaria* auzian Bermudez epaileak emandako epaia. Poza nagusitu da epaituen artean, euskaldungoaren artean, *Egunkaria*-ren itxiera salatu zuten eta bidegabekeria handia zela uste zuten milaka eta milaka lagun artean. Bost auzipetueta-ko bat, Txema Auzmendi *Egunkaria*-ko administrazio kontseiluko idazkaria, Goiena Telebistako *Magazine*-n egon da asteon. Arritxu Barrusok elkarrizketatu du. Hemen, paperera ekarrita, solasaldia.

Absoluzioa izan da sententzia. Ze irakurketa egiten duzue?

Guk egin genezakeen irakurketaz gain, abokatuena da orain garrantzitsua. Oraindik ez dugu haien irakurketa entzun, zertzelada batzuk izan ezik. Guk esan genezake espero genuela, neurri batean. Geure beldurra zen: aterako da denendako absoluzioa, ala bakarren bati ezarriko diote zigorra... Bostok libre geratu ginela jakin genuenean, lasai, pozik geratu nintzen.

Epaileak idatzitakoa ustekabea izan da?

Bai. Ez nuen espero horren zorrotza izatea. Esan du ez dela egon kontrol judizial nahikorik, *Egunkaria* ez dela edozein enpresa, hedabide bat ixtea oso larria dela... Enpresa bat da, baina hedabide bat da eta eskubide bereziak ditu, adierazpen askatasun eskubidea e.a.

Epai hau *Egunkaria* auzitik haratago doa. Zabalik dauden beste prozesu batzuetan bide berria irekitzen du?

Nik baino gehiago dakienak esan beharko luke hori. Auzitegi Nazionala zer den ondo dakienak. Aurretik ere, frankismo garaian, bazen Tribunal de Orden Publiko delakoa. Eta Auzitegi Nazionala sortu zen, justu, bestea itxi zen egunean. Elkarren segida dira. Ez naiz ausartzen esaten gerora etor daitezkeen beste kasu batzuetan eragirik izango duen edo ez. Udalbiltza kasua eta gurea oso antzekoak dira, baina norainoko sortuko duen jurisprudentzia epai honek? Ezin jakin...

Sentsazio gazi-gozoa, hortaz: errugabeak zaretela demostratu da, libre geratu zara, baina egindako kaltea handia da...



Txema Auzmendi.

GOIENKARIA

Sufrimendua handia izan da. Jasan ditugu umilazioak, tratu txarrak, modu batera edo bestera torturatuak izan gara... Gure-tako, senideendako, ingurukondako... gogorra izan da eta hori ez dago konpontzerik. Gainera, ez du merezi buelta askorik ematerik, osasunarendako kaltegarria izan daitekeelako. Egindako kaltea zelanbait konpondu egin beharko litzatekeela uste dut. Baina horretan ez naiz oso itxaropentsu. Izan ere, harrigarria da epaia ezagutu ostean Dignidad y Justicia ordezkariek esan duena: 60 milioi euro jasoko ditugula eta horiek zuzenean emango dizkiogula ETari. Lasai-lasai esan ditu, gainera. Lagun batek deitu dit esateko ea ez duen merezi hauen kontra salaketa jartzea. Ikusi behar...

Zuek esan duzue, justizia egin baino gehiago, injustiziaren gorpila geratu egin dela...

GEZURRA

"Guardia Zibilaren tesia ez dela egia demostratu da; hori irabazi dugu, euskaldungoari esker"

AULKITXOAN

"Guardia zibilak, Del Olmo eta Dignidad y Justicia eta AVT nahiko nituzke aulkitxoan ikusi"

LOPEZ LEHENDAKARIA

"Tristeza iruditzen zaizkit Lopezen jarrera eta adierazpenak, orain, epaia jakin ostean"

Gauzak esateko modu bat da. Egiaren zerbitzuan aritu dira eta egiaren bila baldin bagabiltza, hiru epaile hauek emandako epaia ona da.

Zazpi urte iraun du prozesuak. Bestalde, azken urteotan badirudi eskubide indibidual eta kolektiboetan atzera egin dela.

Bai. Hori hala da. 1978ko Konstituzioaren ostean sortu diren legeak askoz ere hertsia-goak, interpretazio estuagoak, gogorrak izan dira. Kezkatzen da lege hertsien bidez askatasunari mugak jartzeko joera hori.

Jendartearen babes barik sententzia ezberdina izango zatekeen?

Bai, ez daukat inolako zalantzarik. Konbentziturata nago. Garaipenaz egin dugu berba. Garaipen mugatua izatekotan...

Azkenean, hau ez da izan gu bostok artista handiak garelako, ondo egin ditugulako kontuak, baizik eta atzean izan dugulako herriaren zati handi bat eta euskaldungoaren zati nagusia. Horrek eman digu argia, indarra, animua... Garaipena hori egon daiteke. Guardia Zibilaren tesia ez dela egia demostratu da. Hori irabazi dugu, batez ere euskaldungoari esker.

Kaltea eragin dizueten horiek guztiak epaitegiko aulkitxoan ikusi nahiko zenituzke?

Batzuk bai. Guardia zibilak, Del Olmo epaile instruktorea eta Dignidad y Justicia eta AVT nahiko nituzke aulkitxoan ikusi. Del Olmok ez zeukan tresna nahikorik auzia hasteko, atxilotetak agintzeko... Bestalde, Guardia Zibilari nork eman zion agindua? Eta jasan ditugun tratu txarrak, torturak...? Gainera, epailetara iritsi gara bi elkarte horiei esker. Min handia, zauri handiak, eragin dizkigute, ondorioak larriak izan dira. Honek horrela geratu behar du?

Patxi Lopez lehendakariak esandakoarekin desengainua hartu duela esan du Martxelotamendik.

Tristeza iruditzen zaizkit Lopezen jarrera eta adierazpenak, orain, epaia jakin ostean. Lehenago esan izan balitu... Aurreko lehendakaria, Ibarretxe, hasiera-hasieratik egon zen gugandik gertu. Banan-banan deitu zigun auzipetui eta gonbita egin Ajuria Enera joateko bakarka, harekin egoteko. Isilean egin zuen, handikeriarik barik, hedabideei deitu barik. Bi lehendakarien jarrerak oso ezberdinak izan dira.

Zama handia kendu duzue gaitetik, baina errekurtsioen aukera hor dago eta, bestalde, auzi ekonomikoa ere egiteke dago oraindik.


Dignidad y Justicia koei astelehenean amaitzen zaie errekurtsioa jartzeko epea. Auzi ekonomikoan eskatzen dituzte zigorrak gogorrenak: 17 urtetik 26ra eta 13 milioi eurotik 20ra artekoak. Kalte izugarriak. Edozelan ere, neurri baten, lasai gaude, lehenengo epai hau jakin ostean. Gure abokatuak eskatu dute, fiskalak egin duen moduan, epailetan egin dadila hemen, Gipuzkoan. Hala izango balitz, askoz ere lasaiago egongo gineteke.

HIPOTEKA
GARDENAK
KARTEL HAU
BEZALAKOXEAK.
KUTXAKO
HIPOTEKEK
ZORURIK EZ.

**ONURAZ BETEAK ETA ZER EZKUTATURIK GABEAK.
HORRELAKOXEAK DIRA KUTXAKO HIPOTEKAK, GIPUZKOAR
GEHIENEN KONFIANTZA IZAN DUTENAK.**

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net


 kutxa

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskoizuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

LABORATEGI HOMEOPATIKOA

(JAVIER BARRENETXEA FARMAZIA)

Oñati / Kale zaharra 1 / 943 78 32 14

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe ezk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Eskoriatza > 22
Aretxabaleta > 23-24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27



> **ARRASATE**
Iturbideko obrak hilaren 20an emango dituzte bukatutzat > 12



> **BERGARA**
Atzeratu egin da UNEDen eta Udalaren arteko trukea > 16-17



> **OÑATI**
Joseba Iglesias gogoratuko dute espeleologia jardunaldietan > 20



> **ESKORIATZA**
Bost milioiko aurrekontua onartu du Udalak (+%3,3) > 22

ARETXABALETA > UDALA

Egunotan egingo da Aretxabaletako enplegu teknikari postuaren deialdia

INTERNETEN

Deialdia INEMen webgunean egingo da, eta izenemate modu bakarra hori izango da

GAKOA

Langile hori ezinbestekoa izango da Udalaren enplegu plana garatzeko

LEIRE KORTABARRIA > ARETXABALETA
Egunotan da ateratzekoa INEM-en www.redtrabaja.es webgunean Aretxabaletako Udaleko enplegu teknikaria topatzeko deialdia. Aldi baterako lanpostua izango da, urtebete ingururako, eta ezinbestekoa izango da Udalak martxoan onartu zuen enplegu plana koordinatzeko eta aurrera eramateko. Enplegu plan horren bidez, besteak beste, 35 bat aretxabaletar Udalaren inguruko lanak egiteko kontratatuko lirarteke. Planak INEMen eta Debagoieneko Mankomunitatearen babesa dauka.

Plana prestatu duen Arritxu Oliden (EAJ) zinegotziaren esanetan, "tokiko enplegu eta garapen eragilea izango da. Deialdia astebete inguru izango da INEM-en webgunean, eta izenematea webgunean bertan egin behar da, ez udaletxean eta ezta telefonoz edo mezu elektronikoz bidez; webgunean izena emanda egon behar da". Postu horretarako zein planaren bidez beteko diren beste guztietarako, ezinbesteko baldintzak bi izango dira: Aretxabaletakoa eta langabea izatea.

35 KONTRATAZIO ZUZEN

Enplegu planak hiru ardatz ditu, eta horietako bat da, hain zuzen ere, kontratazioa. Izan ere, iazko urtarrilean 184 langabe zeuden Aretxabaletan, eta aurten, 363, %10eko langabezia tasa. Hala, enplegu planaren bidez, "helburua da langabeen %10 kontratatzea", dio Olidenek. Gaine-



Enplegu plana prestatu duen zinegotzia, Arritxu Oliden, udaletxe aurrean.

LEIRE KORTABARRIA

ratzen duenez, "aldi baterako kontratuak izango dira, batzuk egun erdirako eta beste batzuk egun osoarako. Batzuk mantenu lanak egiteko postuak izango dira, baina baita kualifikazio handiagoko postuak ere: adibidez, merkataritza sustatzeko bat; Gizarte Zerbitzuen inguruan beste bat..." Zuzeneko kontratazioa izango da.

Bigarren ardatz bat formazioa izango da: langabeendako ikastaroak, Mankomunitatearekin

elkarlanean. "Hemen ere, baldintza nagusia izango da langabea izatea. Beharbada, beste baldintza batzuk ere ezarriko dira. Dena dela, helburua izango da pertsona horiei lanerako sarrera erraztea. Kontuan hartuko da daukaten ikasketa maila eta lan-merkatuak eskatzen duena. Ikastetxeekin batera egingo dugu: Aretxabaleta Institutuarekin eta Aretxabaletako Arizmendi ikastolarekin", azaltzen du Arritxu Olidenek.

Hirugarren ardatza ekintzaileraren ingurukoa izango da: "Enpresa-ekimenak irteten badira, jende hori prestatzeko jardunaldiak egongo dira: enpresa mundua, enpresaren kudeaketa eta beste arlo batzuk ezagutzarazteko; hau da, ideiak sortzen badira, erraztasunak emateko", esaten du udal arduradunak.

Orain, bere hitzetan, "falta da teknikaria lanean jartzea"; eta hori, dena ondo bidean, hemendik bi astera izango da.

ESANAK

"Tokiko enplegu eta garapen eragilea izango da Udalean; www.redtrabaja.es webgunean agertuko da deialdia"

"Enplegu planaren bitartez, Aretxabaletako langabeen %10 kontratatuko dugu modu zuzenean"

"Ezinbesteko baldintzak izango dira Aretxabaletakoa eta langabea izatea"

Arritxu Oliden > Zinegotzia

HIRU ARDATZ

> KONTRATAZIOA

Enplegu teknikariak gain, beste 35 kontratazio egingo ditu Udalak lanik gabe dauden aretxabaletarren artean. Aldi baterako kontratuak izango dira, Udalaren beharrak asetzeko.

> FORMAZIOA

Langabeendako ikastaroak egingo dira, Mankomunitatearen eta Aretxabaletako ikastetxeen (Aretxabaleta institutua, Arizmendi) laguntzarekin.

> EKINTZAILETZA

Enpresa-ekimenak dituztenei laguntzeko jardunaldiak antolatuko dira, ideiak aurrera eraman ditzaten laguntzeko.

> 350.000 EURO

Planak 350.000 euro inguruko aurrekontua du, eta INEMek diruz laguntzen du; Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundian ere dirulaguntza eskaera egin du Udalak.

OBRAK > ITURBIDE EGOITZA

Iturbide, barruko itxura berriarekin

Apirilaren 20an (martitzena) sinatuko dute berrikuntza obra amaieraren harrera akta

Egoitzaren sarreran falta diren altzariak hilabete barru inguru iritsiko dira

UBANE MADERA > ARRASATE

Obra handi, zail eta luzea izan da Iturbidekoa. Handia, goitik behera berritu dutelako, eraiki zutenetik (orain 25 urte) lehen aldiz. Zaila, 60 bizilagun bertan zeude-

la egin behar izan dutelako. Eta luzea, urte eta erdirako aurreikusitakoa urtebete luzatu delako.

Orain, baina, obrak bukatuta itxura polita erakusten du egoitzak. Argitasunean, erosota-



Egoitzako obren itxura, eguaztenean, Iturbideren sarrera berrian.

U.M.

sunean eta kalitatean irabazi du: "Iturbide pertsona nagusi autonomoendako egin zen; hemendik aurrera, berriz, mendekotasuna duten nagusiendako bakarrik izango da, eta guztia egokitu beha-

rra zegoen", azaldu du Olatz Etxabek, egoitzako udal teknikariak.

Adibidez, logela guztiak berritu dituzte, komunak bereziki. Horrez gain, orain solairu guztiek dute jantoki eta egongela bana:

"Horrela, solairu bakoitza independentea da funtzionamenduari dagokionez", azaldu du Izaro Agirrek, Obra Saileko teknikariak.

IGOGAILUAK ETA SARRERA


Igogailu berriak ere ipini dizkioite egoitzari. Orain lau halako ditu: bi txiki eta handi bat (26 lagunenak, 2.000 kilo) egoiliar eta haien senideendako, eta beste txiki bat langileendako.

Baina, duda barik, aldaketarik nabarmenena beheko solairuan egin dute, Abaroa egoitzak okupatzen zuen espazio osoa gehitu diote eta Iturbideri. Sarrera berria egokitu dute bertan, erabat automatizatu eta irisgarria. Oraindik huts samar ikusten da, ekipamendu osoa falta delako: "Hilabete barru-edo egongo da altzariekin jantzita". Eta ile-apaindegia, fisioterapia gela eta podologia gela ere bertan ipiniko dituzte, besteak beste. Horrekin batera, nagusien bisitariendako egongela ere egokitu dute, "kafe makinekin eta".

DIRU ETA DENBORA GEHIAGO

Hori guztia egiteko 3.660.755 euro erabili dituzte, aurreikusitakoa baino 900.000 euro pasa gehiago. Ezarritako epea baino urtebete gehiago ere bai. Arrazoia da Diputazioarekin adostutako proiektua oso txiki geratu eta obra handiagoa egin behar izan dutela.

EGOILIARREN IRITZIAK



Blanka Iturbe

"Erosotasun handiagoa dago orain, ederto utzi dute"

"Ikusgarri dago. Uste dut beharra ere bazuela. Denean hobetu da, pozik gaude. Erosotasun handiagoa dago. Eskailerak, igogailuak... den-dena ederto utzi dute. Eta obrek iraun duten bitartean, gu ez gara batere molestatu. Dena den, nik ez dut hemen sekula ezeren beharrik igarri".



Valero Feo

"Beharrezkoa zen, 25 urte ditu, eta orain arte ez da ezer egin"

"Bukatuta dagoena ondo geratu da, guztia hobetu da asko. Berogailu berriak ditugu logela eta egongela guztietan... beharrezkoa zen; 25 urte ditu, eta orain arte ez da beste ezer egin. Berritu egin dute dena. Iturbiden oso ondo gaude, dena eginda, eta konpainia onarekin".



Rosario Guridi

"Hauts eta zarata handia tragatu dugu, baina merezi izan du"

"Oso-oso ondo geratu da, benetan polit utzi dute; ni oso pozik nago. Egia da hauts eta zarata handia tragatu behar izan dugula, batez ere hautsa, baina merezi izan du; adibidez, sarrerako koskatxoak kendu egin dute gurpildun aukiei eta taka-takei bidea errazteko... Hau lau izarreko hotela da".



Ana Mari Amozarrain

"Oso gustura gaude egoitza berriarekin, denean irabazi du"

"Oso gustura gaude egoitza berriarekin. Denean irabazi du: igogailuak, berogailua, logelak, komunak... Obrak apur bat luzetxo joan dira, baina ondo egiteko txarto pasatu behar da lehenengo. Iturbide gustura bizi izateko moduko lekua da, gu pozik gaude".

Monte
taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

HISTORIA > 'ARRASATE, HARRI ETA BURDIN'

Hiri-gutunaren 750. urteurrenean hitzaldi zikloa, idatzita ez dagoen historia ezagutzeko

Udalak data berezia aprobetxatu gura du Arrasateko historiaren hausnarketa egiteko

Urte osorako egitarau zabala prestatu gura dute; hasteko, bost hitzaldi egingo dira

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Maiatzaren 15ean 750 urte bete-ko dira Gaztelako erregeak, herensenguaren kondairak txundituta, Arrasateri Mondragon *-Monte del dragón-* izena jarri zio-
la. Hau da, 750 urte beteko dira Alfontso X.ak Arrasateri hiri-gutuna eman zionetik. Bada, Udalak data berezia aprobetxatu gura izan du Arrasateren historiaren gaineko hausnarketa egiteko. Udalak argi dauka hiri-gutunaren aurretik Arrasate existitzen zela; horren adierazle dira, esaterako, Leze Txikiko aztarnak. Finean, idatzita ez dagoena ezagutzeko saiakera egin gura dute.



Oihana Aranburu eta Jon Garai, Erdiko kalean, hitzaldien berri ematen. LARRAITZ ZEBERIO

HERRI EKIMENETATIK EDATEN

Udalak herrigintzan diharduten bi elkarteren proposamenak jaso ditu dagoeneko. Zuztarrak Errotuz-ek eta Doke antzerki taldeak euren ekarpena egiteko asmoa erakutsi dute eta Udalak adiera-

zi du oraindik ere ekarpenak jasotzeko ateak zabalik daudela.

Bost hitzaldirekin osatutako hitzaldi ziklo batekin hasiko dira. Euskal Herriko eta Arrasateko ikuspegietatik abiatuz egingo da hausnarketa eta horretarako goi-

Hitzaldi zikloa, noiz eta non

Apirilak 21, eguaztena

19:00 *Karta Pueblak 750 urte, ospatu edo ez ospatu?*, Bilkuren aretoan. Angel Rekalde, Beñi Agirre eta Mirari Bereziartua.

Apirilak 28, eguaztena

19:00 *1200. Lurraldetasunaren galera*, Bilkuren aretoan. Hizlaria: Aitzol Altuna.

Maiatzak 5, eguaztena

19:00 *Arrasate harri eta burdin*, Kulturaten. Hizlaria: J.A. Azpiazu.

Maiatzak 12, eguena

19:00 *Arrasateko gaztelu eta hiribildua*, Kulturaten. Hizlariak: Mertxe Urteaga eta Ana Ugalde.

Maiatzak 13, eguena

18:30 *1448ko Arrasateko erreketak*, Kulturaten. Hizlaria: Toti Martínez de Lezea. Antolatzailea: HHIn zentroa.

mailako historialariak izango dira gurean. Hitzaldien ostean beste hainbat ekintza egiteko asmoa du Udalak, aukera honetaz baliatu nahi du-eta "Arrasateko historiaren eta ondarearen berreskuratze eta hedapenerako".

> EKIN EMAKUMEAK 15. urteurreneko ekitaldien hasiera arrakastatsua

Martxa onean hasi dira Ekin Emakumeak elkarrean 15. urteurreneko ospakizun ekitaldiak. Ana Ugalde historialariak eguaztenean egin zuen *Emakumeok Arrasateko historian* hitzaldian lepo bete zen Kulturateko Jokin Zaitegi aretoa. Ugaldek herriko emakumeen gaineko hainbat datu eman zituen, gerturatu ziren emakumeen -gizonez-koren bat ere izan zen- gozamen eta harridurarako.

> ZERBITZUAK

Maiatzetik aurrera ezingo da Nortasun Agiria Arrasaten egin

Apirilaren 29a izango da arrasatearrendako Nortasun Agiria bideratzeko azken eguna. Izan ere, Espainiako Poliziak jakinarazi du Nortasun Agiri elektronikoa inprimatzeko makina bereziak ez dituztela herrietara eramango. Arrasaten hamar urtez eskaini dute zerbitzua. Hala, Nortasun Agiria egin edo berri-
tu gura duenak hiriburuetara jo beharko du, Espainiako Poliziaren egoitzetara.

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

ESKUBALOIA > KOPA

Kopako bigarrenenean Ereintza hartuko du Ford Mugarririk

Igoera fasearen ondoren Ford Mugarririk mutilek kopa txapelketa hasi dute, eta ondo, gainera, Irun taldea mendean hartu zuten-eta, erraz

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Kategoriaz igotzeko borrokan azken unera arte etsi ibili ostean, Ford Mugarririk Arrasatek denboraldiko helburuak berri-tuta ekin dio txapelketari -nahiz eta aurtengo helburuan dagoeneko ondo beteta utzi dituzten, kirol mailan bai, behintzat-. Hala, Edu Orgazek mutilek bide onetik hasi zuten joan den astean Kopa, Irun-gon kantxan kontrarioa 21-33 mendean hartuta.

Guztira, hamasei taldek hasi dute kopa, denak gipuzkoarrak, baina hori bai, hainbat kategoriatan lehian dabilzanak. Horrek



Ford Mugarririk eta Egia, Iturripen orain dela aste gutxi jokatuako partidu erabakigarrian.

GOIENKARIA

esan gura du txapelketa berri-an alde handia egon daitekeela talde askoren artean. Ford Mugarririk gaur, egubakoitza, joka-

tuko dute bigarren jardunaldia, Usurbilen kontra. Talde horrek pattal hasi du Kopa, Ormaiztegi-ren kontra 24-20 galdu zuten-eta.

Bestalde, bigarren territoria-leko taldeak ligako 24. jardunaldia jokatu du Usurbilen kontra, Iturripen (zapatua, 18:00).

zaldibar

EMAITZAK

Lasagabaster-Komando Alpagat	4-3
Cipris-Betrayer	1-3
Ekaitz-Aldapa	5-4

PARTIDUAK

Apirilak 17, zapatua	Epaileak
10:30 McAwenDauen-Ekaitz	AT Celaya
11:30 AT Celaya-Cipris	McAwenDauen
12:30 Dublin-Dribling	Cipris
16:00 Aldapa-Lasagabaster	Komando Alp.
17:00 Komando Alp.-Fidel & Disc.	Aldapa

Apirilak 18, domeka	Epaileak
10:30 Iritzu-Steau del Grifo	McAwenDauen
11:30 McAwenDauen-Katenatxio	Iritzu
12:30 Abokajarro-Betrayer	Katenatxio

SAILKAPENA

	P	J
1. Dublin	36	13
2. Dribling	32	13
3. Iritzu	29	13
4. Betrayer	27	13
5. AT Celaya	26	13
6. Abokajarro	26	13
7. Lasagabaster	21	13
8. Cipris	16	13
9. Ekaitz	16	13
10. McAwenDauen	15	13
11. Fidel & Disc	15	13
12. Aldapa	9	13
13. Iluntz	5	13
14. Katenatxio	4	13
15. Komando Alpagat	2	13
16. Steaua del grifo	0	13

Maiatzaren 1ean jokatu dute Lasagabasterrek eta Betrayerrek Kopako finala

Langileen Egunean jokatu dute bi talde horiek Kopako finala, finalerdietan Komando Alpagat eta Cipris taldeak atzean utzi eta gero.

Oraingo asteburuan ligako azkenaurreko jardunaldia jokatu dute Zaldibarren; horrenbestez, hurrengo faserako sailkatuko diren artean egoteko lau puntu baino ez daude jokoan. Sailkapenean lehenengo zazpi sailkatuek abantaila hartu dute, eta orain momentuan Ciprisek betetzen du zortzigarren postua. Esan beharra dago Katenatxio-Iluntz partidua atzeratu egin dutela.

SASKIBALOIA > LEHEN NAZIONAL MAILA

Aukerak dauden artean MUkoek ez dute esperantzarik galdu nahi

Oraingo asteburuan, jaitsiera fasean hirugarren lekuan dagoen Baskoniaren kantxara joango dira jokatzera, eta amaitu dira akatserako tartek

X.U. > ARRASATE

Joan den asteburuko porrotaren ostean MUko entrenatzaile Javi Zurbanok ez zuen etsi nahi: "Tal-deak denboraldi honetako partidu batean ere ez du eman duen dena, eta noizbait izan beharko da". Hala, noizbait hori geratzen diren bost partiduetan izango den esperantzarekin, Arrasateko-

ek oraindik ez dute amorerik eman nahi, eta matematiketik aukerak daudela dioten bitartean iaz egindako balentria errepika dezaketela sinistu nahi dute.

Esandako moduan, bost partidu geratzen dira jaitsiera fasea amaitzeko; bost final, horrenbestez. Eta horietako lehena ez da samurra izango, hirugarren

lekuan dagoen Baskoniaren kantxara joango dira-eta zapatuan MUko mutilak (17:00).

PAREKOTASUN HANDIA

Kategoria horretan dagoen parekotasun handia ikusita posible da bolada on bat jarraian harripatzea, eta hori da *salbaziorako* bide bakarra.



Barbero saskira botatzen.

GOIENKARIA



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Nunila Lopez > Ipuin kontalaria eta idazlea

"Denok dugu 'aski da!' esateko eskubidea zoriontsu ez bagara"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Ahoz ahokoaren bidez mundu osoan irakurria izan da *La Cenicienta que no quería comer perdices* ipuina. Orain, euskaraz argitaratu du Txalapartak (*Marizipritinek ez du zorioneko galeperrik nahi*). Egileek, Nunila Lopez bartzelonarrak eta Myriam Cameros iruindarrak, lanaren berri emango dute martitzenean, hilak 20, Kulturaten, 19:00etan.

Zelan sortu zen *La Cenicienta...*?

Orain dela urte asko idatzi nuen, Bartzelonako Horta auzoko tratu txarrak jasandako emakumeen elkarte baten enkarguz, gida baterako. Gero nik editatu nuen eta CDan salgai jarri nuen. Myriamek entzun zuen eta esan zidan marrazkiak egingo zituela. Handik bi urtera ekarri zizkidan marrazkiok eginda.

Laburtuko diguzu istorioa?

Ezkondutik egiten den eta zoriontsu ez den Mari Errauskine bat da. Halako baten, *nahikoa da!* esaten du. Eta hortxe utziko dut, ez dut bukaera kontatuko.

Emakumearen gaineko istorioa da, hortaz?

Bai, emakumearen gainekoa eta zerbait gustatzen ez zaiguneko nahikoa dela esateko dugun eskubidearen gainekoa. Hasieran, emakumearen gainekoa zen, eta tratu txarren gainekoa, baina gero konturatu ginen denon-



Nunila López.

GOIENKARIA

"Ezkondutik den eta zoriontsu ez den Mari Errauskine baten ipuina aurkeztuko dugu"

"Ipuina autoeditatu egin gura genuen; pixkana-pixkana, munduari bira eman zion"

dako zela: gizonezkoendako, umeendako... Edozeinek esan dezake *aski da!*, eta ez bakarrik tratu txarrei dagokienez: lana, adiskidetasun harreman bat... zoriontsu egiten ez gaituen edo zer gauza eteteko eskubidea dugu.

Planeta argitaletxeak eskaintza egin zizuen...

Bai; hasieratik egin zigun argitaratzeko eskaintza, baina guk autoeditatu egin gura genuen eta ezetz esan genion. Ez geneukan dirurik eta negozioa zuten lagun batzuei mezua bidali genien, diruz lagun ziezaguten publikitatearen truke. Haiek beste lagun batzuei bidali zieten, eta horrela, munduari bira eman zion, eta ezagutzen ez genuen jendearengandik lortu genuen dirua. Hori da izan dugun laguntza, jende arruntarena, eta baita institutu, ikastetxe... askorena.

Ipuina martxoan irten zen autoeditatuta; Planetari baiezkoa ekainean eman genion, eta urrian argitaratu zuten. Txalapartari ere baiezkoa eman genion. 24.000 ale saldu ditugu. Arrasateko aurkezpenean, liburua eta CD batzuk izango dira salgai.

Zer iruditzen zaizue horrelako oihartzuna?

Oso pozik gaude, merezi dugu, baina ez genuen espero. Gehien hunkitu eta animatu gintuena izan zen hasierako erantzuna, jendearena.

Dena dela, ni kontalaria naiz, ahozkoasuna lantzen dut, eta + benetan gustatzen zaidana agertokira igotzea da. Kabaret bat daukat. Nire ipuinetan, hainbat gai lantzen ditut: homosexualitatea, hiesa, berdintasuna... inork landu nahi ez dituen gaiak.

EUSKARA

Arrasate Lehiaketetako finalistak izenak, argitara

L.K. > ARRASATE

AED elkarteak jakinarazi ditu 23. Arrasate Lehiaketetako finalistak izenak. Sari banaketa hilaren 23an izango da, Kulturaten, 18:00etan. Arrasateko eta Aramaioko finalistak daude.

AEDren esanetan, "maila guztietan oso lan polit eta kalitatezkoak aurkeztu dira". Horregatik, "ez da lan makala izan saridunak aukeratzea". Eta aipatu dute parte-hartzea handitu egin dela: aurreko urtean 127 lan aurkeztu ziren eta aurten, 140.

Finalistak, kategoriaren arabera

IPUINA

> DBH1-DBH2: Garazi Romero Sanchez eta Irati Erostarbe Maiztegi
> DBH3-DBH4: Aitor Etxezarreta Learreta eta Ainhoa Urtzelai Vicente

BERTSO PAPERAK

> LH5-LH6: Eider Pozo San Vicente eta Ane Caceres Aldai
> DBH1-DBH2: Arantzazu Letona Elizburu eta Irene Dolara Balantzategi
> DBH3-DBH4: Nahia Zeziaga Bengoa eta Elene Gallastegi Uribe
> 17TIK GORAKOAK: Xabier Igoa

POESIA

> LH5-LH6: Matilde Aizpurua
> DBH1-DBH2: Nerea Dorronsoro Murgiondo eta Garazi Romero Sanchez
> DBH3-DBH4: Elene Gallastegi eta Ainhoa Zabaleta-Ainhoa Barberan

KOMIKIA

> LH5-LH6: Aitor Gonzalez eta Jule Arriola Elexpuru
> DBH1-DBH2: Celia Ruiz eta Iker Hervias

> GAZTEAK

Gaztetxeko fantzine berria eta Josu Arteagaren liburua aurkeztuko dituzte bihar, zapatua

Gaztetxearen *Putusein* fantzine berria aurkeztuko du AGAKOK bihar, zapatua, arratsaldean. Euren esanetan, "helburua da arrasatearren sorkuntza argitaratzea, inongo zentsurarik gabe". Ez du maiztasun finkorik izango, baina aldi berean konstantzia bat izango duela esan dute, "sistemak eskaintzen ez duena argitaratzeko". Ekitaldi berean, Josu Arteagaren *Historia universal de los hombres gato* liburua eta *Ekintza zuzena* aldizkariaren 37. zenbakia ere aurkeztuko dituzte. "Ekitaldi xume" gisa planteatu dute.

IRAKURZALETASUNA > LIBURUAREN EGUNA

Montianok 'Todo vale' nobela beltza aurkeztuko du gaur

Hitzordua Kulturaten da, arratsaldeko zazpitan

L.K. > ARRASATE

Liburuaren Nazioarteko Eguna iri begira hainbat ekitaldi izango dira gaur, egubakoitza, eta datozten egunotan, Udaleko Kultura

Sailaren eskutik. Hala, gaur, egubakoitza, Jose Ignacio Montiano pediatria eta idazle arrasatearrak *Todo vale* nobela aurkeztuko du Kulturaten, 19:00etan.



GOIENKARIA

Genero beltzeko nobela hori irratia baten inguruan dago giro-tuta, eta, zehazkiago, txantxa gisa hasi eta "amesgaizto" bihurtzen den esperimendu baten inguruan.

LIBURU ELEKTRONIKOA

Datorren egunean, hilak 22, liburu elektronikoa gai hartuta, mahai-ingurua egingo dute Jorge Jimenezek, Josu Landak eta Eneko Barberenak; eta hilaren 27an, *Bi Anai: komuneko paperean idatzitako poemen errezitaldia* izango da.

DRAME
IGARLEA - MEDIUMA



Edozein arazo konpontzen dut, nahiz eta zaila izan: maitasuna, lana, arazo familiarra...



672 55 14 44
945 06 27 42



**Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Gaur Apirilak 16
00:00etatik aurrera

100 años
de perdón

IAMAIAANTZOKIA
ARRASATE

UDALA > UNED PATRONATUA

Atzeratuta Arrizuriaga eta Seminarioaren arteko trukea

"Behintzat urtebetez" atzeratu da, Aldundiaren erabakiz, "gauden egoera ekonomikoa" tarteko

Udal Gobernuak haserre hartu ditu Aldundiaren hitzak eta uste du "trukea doako erabakia" dela



Errege Seminarioa da San Martin plazako eraikin nagusietako bat.

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Arrizuriagaren eta Errege Seminarioaren arteko trukea mahai gainean lagatzea adostu du UNEDeko Patronatuak egindako azkeneko batzarrean, apirilaren 9an. Eta "behintzat urtebetez" atzeratuko da, Maria Jesus Aranburu Kultura diputatuak batzarren ostean aurreratu zuenez.

Atzeratzearen erabakia Foru Aldunditik etorri da eta, hain justu, hark du Patronatuan ordezkariak, %63. Kutzak %27 du eta Bergarako Udalak, berriz, %10.

Maria Jesus Aranburuk bi arrazoi nagusi aipatu zituen Aldundiaren erabakia argudiatzeko. Batetik, Jaurlearitzaren inplikazioa: "Ulertzen dut behin betiko erabakia hartu aurretik komenigarria dela ezagutzea Eusko Jaurlearitzaren inplikazioa eta baita haren iritzia ere, UNEDeko etorkizuneko balizko ugazaba moduan". Bigarrena, ekonomikoa: "Aurreko arrazoiari gehitu behar zaio gauden egoera ekonomikoan halako neurriko inbertsioak finantzatzea bidera ezina dela. Gaur egun ezinezkoa da halako ezaugarrietako konpromisoa asumitzea. Eta aurreikus-

ten dugu 2011. urtean behin betiko kokapenaren finantzazioa definitzeko moduan egongo garela".

Bien bitartean, "besoak gurutzatuta" eta "denbora pasatzeko zain" ez direla egongo ere gehitu zuen: "Seminarioak etorkizunean izan ditzakeen dena delako erabilerak direla ere, erabaki dugu eraikinak beharrezkoak dituen hainbat obra egitea: egitura, teilatua eta teillatu-azpia konpontzea eta oztopo arkitektonikoak ezabatzea". Lan horiek urrirako, datoren ikasturte hasierarako amaituta egotea aurreikusten dute.

BI URTEKO JOAN-ETORRIA

UNEDeko Patronatuak 2008ko urrian adostu zuen Errege Seminarioa Ekonomia eta Ogasun Ministerioari erostea, milioi bat euroren truke. Eta erosketa 2009ko abenduan gauzatu zen. Horrez gain, urte bereko apirilaren 6an egindako osoko bilkuran trukearen alde azaldu zen udalbatza; EAJ alderdiak baino ez zuen kontra bozkatu. Horrekin guztiarekin bazirudien eraikinen arteko trukea gauzatzeko ez zela askoz gehiagorik behar, baina Patronatuaren azkeneko batzarren emaitza bestelakoa izan da.

Trukea gauzatu gero, Arrizuriaga jauregia UNEDen esku geratuko litzateke eta UNEDek, dagoeneko, eraikina egokitzeko eta ikastetxea han kokatzeko proiektua eginda dauka. Bergarako Udalaren kasuan, Errege Seminarioa jasoko luke trukean eta kultura ekipamenduetarako bideratu ahal izango luke.

Baina hirugarren erpina ere badu trukeak: hain justu, Aranzadi ikastola osoa Errege Seminarioan kokatzea ahalbidetuko luke. Baina trukea oraingoz gauzatu ez den arren, aintzat hartu du UNEDeko Patronatuak Aranzadi ikastolaren eskaria eta osorik sartzeko lekua izango du. Halaxe azaldu zuen erabakia Aranburuk

Patronatuaren batzarren ostean: "Patronatuak erabaki du baietza ematea Aranzadiren eskariari; hau da, Seminarioan duen lekua handitzea, Udalak ekipamendu kulturalerako dagoeneko erabiltzen ez dituen metro karratuak lagata". Eta gehitu zuen: "Modu horretan Bergarako eskolen mapa berregituratzen laguntzen dugu".

UDALEKO ALDERDIEN BALORAZIOA

EAJ

"Berri ona da Aranzadiri leku handiago ematea"

"Albisteak poztu egiten gaitu. Trukea atzeratzea erabaki da, baina beste erabaki bat ere hartu da: Aranzadi ikastolari leku handiago ematea Seminarioan, eta hori oso albiste ona da". Eta gehitu dute: "Beti egon gara trukearen kontra eta Patronatuaren erabakiak ziurtasun handiago ematen digu. Ez zaigu buruan sartzen nola hipoteka daitekeen Arrizuriaga, herrian dagoen gune onenetakoa, UNED hara eramaten. Seminarioan leku nahikoa du, *on-line* eskolak gero eta ohikoagoak dira-eta".

PSE-EE

"Atzerapena da etika eta koherentzia falta"

"Trukea urtebetez atzeratzea koherentzia eta etika falta da", alderdi sozialistaren ustez. Bestalde, zera uste dute: "Aldundiak -EAJ- gehiengoa duenez Patronatuan, aprobetxatu egiten du abagunea lotsagabeki. Negoziazioak hasi ziren unetik trukearen aurka egon da EAJ eta trukea atzeratzean proiektuaren helburuak geldiarazi baino ez dituzte egiten, arrazoi barik. Helburu elektoralista baino ez dute; hortik urtebetez atzeratzea udal hauteskundeak arte".

EA

"Atzeratu da azkenean ez delako trukea egingo"

EAK uste du trukea atzeratzen dela "azkenean ez delako burutuko". Dena den, oker egotea espero du, "udalbatzak onartu" egin zuelako alde egitea. Jaurlearitzaren inplikazioaren harira dio trukea egitea erabaki zenean ere inplikazioa eza gutzea komenigarria izan zitekeen arren, aurrera egitea erabaki zela. Eta Aldundiak emandako argudio ekonomikoari buruz dio: "Arrazoi koherentea izan daiteke, baina ez da argi geratzen 2011n non kokatuko den UNED; hala, ez dago argi permutarik egingo den".


TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Mujika

gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92



ARTXIBOA

ESANAK

"Behin betiko erabaki aurretik inportantea da Jaurlaritzaren inplikazioa ezagutzea Patronatuko balizko uzazaba bezala"

"Gauden egoera ekonomikoan halako neurriko inbertsioak finantzatzea bidera ezina da"

Maria Jesus Aranburu >
Kultura diputatua

"Aranzadiri obra baimena ematea garrantzitsua da, baina baldintzak ondo zehaztu behar dira"

Ane Barruso >
Aranzadi ikastolako zuzendaria

zatekeen eta Udalak esanda zigun lagapen bat egingo zigula. Modu horretan ziurtatzen genuen obrak egin eta gero guk erabiliko genituela instalazio horiek. Baina egoera berri honetan, ez dugu batzarrak egin ez Patronatuarekin ezta Aldundiarekin ere jakiteko ze terminotan ematen diguten obra baimena. Hau da, izan daiteke guk obrak egin eta hemen dik lau urtera alde egin beharra izatea UNEDek lekua behar duelako, edo izan daiteke ziurtatzea Seminarioan geratuko garela". Horren aurrean, Aldundiko ordezkariarekin batzartu nahi dute baldintzak zehazteko eta akordio bat sinatzeko.

Horrekin guztiarekin, eta "obra baimena pauso garrantzitsua dela" onartuta, baldintzak ondo zehaztu arte ez direla obrak egiten hasiko gehitu du zuzendariak, nahiz eta proiektua eginda izan.

OBRAK UNED-EN

Juanjo Alvarez UNEDeko zuzendariak ez du atzerapenaren gaineko baloraziorik egin nahi izan. Eta azaldu du Aranburuk esandako eraikinaren egokitze lan horiek ekainaren lehen hamabostaldian hastea aurreikusten dutela: "Dagoeneko horretan jarri gara eta proiektua prestatzen dihardugu. Trukearen aukerak irten aurretik obrak egiteko asmoa geneukan eta orduan egindako proiektua hartuko dugu oinarri moduan. Hiru bat astean prest egongo dela uste dugu eta gero lehiaketara aterako dugu. Urrirako, ikasturte berrirako amaituta egotea nahi dugu".

Barrusok esan duenez, Patronatuaren erabakiarekin Aranzadik lortzen duena da Errege Seminarioan lekua egitea Martinez de Irala eraikinean dituzten gelak han kokatzeko, baina ez dakitena da "zein terminotan", eta horixe da zuzendariaren zuzentziaren arrazoi nagusia. Honela azaldu du: "Trukea egin izan balitz Seminarioa Udalaren esku geratuko

ARANZADI, ZUHUR

Ane Barruso Aranzadi ikastolako zuzendariari balorazioa eskatuta, zuhur azaldu da: "Patronatuko batzarra baino bizpahiru egun lehenago deitu egin ziguten Diputaziotik esateko gure obra baimena onartu egingo zela Patronatuaren batzarrean. Hortik aurrera ez dakigu besterik, soilik prentsan irakurritakoa".

Agurne Barruso > Alkatea

"Erabakia ez da bidezkoa ezta zentzuzkoa ere"

M.B. > BERGARA

Udal Gobernuak ez dago pozik erabakiarekin. Eta halaxe azaldu du Agurne Barruso alkateak.

Nola hartu duzue erabakia?

Haserre, bi urteren ondoren eta mahai gainean erabaki bat izango genuela aginduta zigutenean, bada, Patronatuko batzarrean jaso genuena izan zelako honakoa: erabakia dela ezin dela erabaki. Hori ez da bidezkoa ezta zentzuzkoa ere.

Trukea atzeratzeko emandako argudioei zer deritzezue?

Oso ahulak. Bi argudio nagusi eman zituzten; bata, Jaurlaritzaren balizko parte-hartzea Patronatuan. Bada, horren harira, erantzun genien Jaurlaritza eta hango alderdia trukearen alde daudela eta hala adierazi dutela Batzar Nagusietan, Udalean... Hortaz, ez dugu uste Jaurlaritzaren parte-hartzeak trukea baldintzatuko lukeenik. Eta egoera ekonomikoaren argumentuari

dagokionez, argumentua baino gehiago aitzakia dela uste dugu. Izan ere, truke bat doako erabakia da. Hortaz, har dezagun orain erabakia eta egin dezagun bide-orri bat, nolabait obrak noiz egin daitezkeen zehazteko; bi urte barru bada, ba, bi urte barru. Hain justu ere, horixe da proposatu geniena.

Trukeak kostu ekonomikorik ez du, baina UNEDi eta Udalari emango liguke estrategikoki pentsatu ahal izateko aukera.

JAIK > PAZKOAK

Goitibehera lehiaketa egongo da Mendekosteetan

Sekula baino herri bazkari handiagoa ere antolatu dute: 700 txartel jarriko dituzte salgai

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Maiatzaren 21etik 25era Mendekoste jaiak ospatuko dira eta dagoeneko prest dauka Jai batzordeak egitaraua. Horren harira, hainbat ekintzatan parte hartzeko izenemateak zabaldu dituzte eta baita txartelak erosteko epealdien berri eman ere.

GOITIBEHERA TXAPELKETA

Gazteria Kontseiluko kideen eskaria aintzat hartuta, goitibehera lehiaketa egongo da Pazko-zapatuan. 12:00etan hasiko da eta San Martzialgo bidean jokatu da; bidegurutzetik behera.

Herritar guztiei zuzenduta dago eta hainbat sari egongo dira: 16 urtetik gorako lehenengoak 300 euro jasoko ditu; 12-16 urte arteko lehenak, 150; eta emakumeek gidatutako goitibehera originalenak, 100 euro.

Goitibeherak egiteko ez dago baldintzarik, baina parte-hartzaileek kaskoa eta arropa egokia erosi beharko dute. Bestalde, parte hartzeko ezinbestekoa izango da izena ematea maiatzaren 17a aurretik. Horre-

tarako jo kultura etxera edo deitu 943 77 91 60 zenbakira.

HERRI BAZKARIA

Pazkoetako herri bazkariak urtetik urtera indar handiagoa hartu du, eta, hori ikusita, 700 lagunendako txartelak salgai jartzea erabaki du Jai batzordeak. Bazkaria San Martin plazan izango da, baina, euri arriskua egonez gero, Labegaraietako kiroldegian egongo da, guztiendako lekua egon dadin. Hori horrela, Labegaraietara joateko urbano zerbitzua jarriko du Udalak.

Bazkariko menua izango da: patatak errioxar erara, txahal ragouta, etxeko hostopila eta kafea. Prezioari dagokionez, helduek 15 euro ordainduko dute eta 10 urtetik beherakoek, berriz, 10 euro. Zeliakoendako bazkaria behar duenak kultura etxean jakinarazi beharko du txartelak saltzeko epea amaituurretik. Hain justu, apirilaren 26tik maiatzaren 13ra egongo dira salgai, Ariznoa eta Pol-Pol tabernetan eta kultura etxea.



Iaz 500 lagunendako txartelak saldu zituzten.

GOIENKARIA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ANDUZU
GARRAIOAK
Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa | Era guztietako kargak
BERGARA
607 34 90 43

PILOTA > BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Lau t'erdiko txapelketa amaitu, eta bikotekakoa hasi dute Bergaran

Txapelketa batetik bestera atsedetik hartu barik, Bergara pilota elkartekoez amateur eta 22 urtez azpiko onenak gonbidatu dituzte

XABIER URTZELAI > BERGARA
Martitzenean hasi zuten bikotekakoa jokatu duten Bergara Hiria txapelketaren 15. edizioa. Hala, lau t'erdiko txapelketa amaitu berri, Bergara pilota elkartekoez Euskal Herriko amateur mailako pilotari onenak batu ditu berriro ere, baita 22 urtez azpikoak ere.

MUGURUTZA, KANPORA
Lehenengo jardunaldia ez zen ibarreko ordezkarietako batendako ona izan, Ander Mugurutza

kanporatua izan zelako, Albisu-rekin batera 22-11 galdu zuen-eta Ricoren eta Jauregiren kontra. "Ricok partidu ona egin zuen, eskuin eskuarekin min egiten duen pilotari horietakoa da, eta Mugurutzak ez zuen partidu txarra egin, baina tantoak amaitzerakoan ez zuen beste batzuetan moduan asmatu", adierazi du antolatzaile lanetan buru-belarri dabilen Reyes Azkoitiak. 22 urtez azpikoen kategorian, berriz, Antsoategi eta Lana erraz nagusi-

tu ziren (22-9) Arrietaren eta Lizeagaren kontra.

PARTIDUAK MARTITZENETAN

Txapelketan kategorია bakoitzean zortzi bikote daude, eta martitzenero jokatu dituzte kanporaketak, finala iritsi arte, maiatzaren 24an, Mendekoste jaietan.

Martitzenean jokatu zuten lau pilotariekin batera txapelketan izango dira: Larrañaga, Girones, Gorka, Merino II.a, Yoldi, Etxeberria, Alberdi, Onsalo -lau t'erdiko txapelduna-, Keralt eta Mendizabal antzuolarra.

22 urtez azpikoetan, berriz, txapelketan esku hartuko dute Rezusta eta Bolinagak.



Plentzian izan zen Bergarako alebin mailako taldea.

BERGARA KE

> FUTBOLA

Bergarako alebin mailako taldea laugarren sailkatu da Plentzian jokatu duten torneoan

Bergarako alebin mailako taldekideak Plentzian izan ziren hilaren 4an eta 5ean, Jesus Irusta torneoan esku hartzen. Txapelketan hamasei talde izan ziren, lau multzotan banatuta, eta bergararrak laugarren sailkatu ziren.

Mahoneroak A multzoko lehenengo postuan sailkatu ziren final-laurdenetarako. Ligaxkan ondo egin zuten lan, Zabalganabide (0-4), Vulkanok (0-4) eta Plentzia (0-2) taldeei irabazita. Azken faseko lehenengo partiduan 1-0 irabazi zioten Mungiari, baina finalerdian 2-1 galdu zuten Haro Sport-en aurka. Txapelketa ona eginda itzuli ziren etxera, eta, gainera, Xabier San Jose bergararra izendatu zuten torneoko jokalarari onena.

> ESKUBALOA

Igoera faseko bigarren garaipenaren bila kantxaratuko dira Muniategiren mutilak bihar

Euskadiko txapelketara igotzeko lehian dabilen Bergarak oraingo asteburuan ere etxean jokatu du, ordu ezohikoan. Izan ere, Josetxo Muniategiren mutilek 20:00etan egingo dute Labegaraie-tako kantxara salto; Deustuko Unibertsitatearen kontra lehiatu behar dute.

Joan den asteburuan Trapagararen kontrako garaipen balio-tsua ondoan, Bergarakoek etxeko kantxa gotorleku bilakatu nahi dute, gora igotzeko ezinbestekoak izango dira-eta etxeko puntuak, eta baita kanpoan ezusteko bat edo beste ematea ere. Bisi-tariak, Deustuko Unibertsitateak, ondo hasi zuen igoera fasea, baina joan den astean galdu egin zuten etxean (31-38) igoera indartsu hasi duen Egiaren aurrean.

> FUTBOLA

Gazte mailako Euskal Ligan dabilen Bergarak puntu bat behar du kategoriari eusteko

Euskal Ligan dabilen Bergarak domekan (17:00) jokatu du Ipin-tzan ligako azken jardunaldia. Eta Basconiaren kontrako partiduak ez du emoziorik faltako, bergararrek puntu bat behar dute-eta kategoriari eusteko. Helburu hori lortzeko bidean, joan den astean aurrerapauso galanta egin zuten liga irabazteko borrokan zebilen Gernika 2-3 mendean hartuta. Hiru puntu horiekin Bergarak 34 batu ditu eta jaitsiera postuetatik kanpo dagoen azken taldea da. Hala, atzean Añorga dago, zuloan sartuta, 32 punturakin. Añorgak ez badu asteburuan irabazten lasai hartu ahal izango dute arnasa, baina Bergarak etxeko lanak egin behar ditu.

**JARDUN-EN
20. URTEURRENA**

APIRILAK 24, MUNIBE PLAZAN

EGITARAUA

12:00etan JARDUNEN EMANALDIAK
Dantzariak, trikitalariak, bertsolariak

13:30ean TRIKI POTEOA

14:30ean BAZKARIA ARYATSEN
Txartelak JARDUNEN bulegoan,
Irrintzi eta Arranon
Bazkideak 12€ gainontzekoak 15€

**22:30ean: XERO XETTE
TALDEAREN
KONTZERTUA**

LAGUNTZAILEA

20 Jardun urte

GOIERRI
Autogidarien Eskola



Gidabaimena euskaraz zein gaztelera atera dezakezu
Informa zaitez

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

MUSIKA ESKOLA > VI. APIRILEAN MUSIKA

Hilabete osoa musikaz blai, Musika Eskolarekin

Musika Eskolak antolatutako jaialdiak hilabete iraungo du oraingoan, eta, musikaz gain, dantza eta antzerkia ere izango ditu



Musika eskolako ikasleak, kontzertuan.

GOIENKARIA

NEREA MENOR > BERGARA

Hasi da dagoeneko Apirilean Musikaren seigarren edizioa. Hilaren 30era arte musika, dantza eta antzerki uholde batek hartuko du herria. Aurrekoetan, aste batean antolatu izan dituzte ekintza guztiak, baina motz geratu eizae: aurten, hilabete eskainiko diete ospakizunei.

Martitzenean irakasleek *Alexander* teknika ikastaroa izan zuten arren, bihar hasiko dira kontzertu eta emanaldiak. 11:30ean Bergarako eta Azpeitiko organo ikasleen emanaldia egongo da Santa Marinaran. "Ikasurte honetan martxan jarritako klaseen emaitza ikusteko aukera izango dugu", adierazi digute

antolatzaileek. Arratsaldean, metal eta hari taldeen kontzertua izango da bertan.

HITZORDU GARRANTZITSUAK

Ekintza azpimarragarriak dira aurten musika moderno lehiaketaren bigarren edizioa eta bi ikastaro: Europako dantzak eta aipatutako *Alexander* teknika.

Iazko edizioan estreinatu zen musika moderno lehiaketa. "Arrakasta handia izan zuen eta

lehiaketarekin jarraitzea erabaki dugu", diote. "Euskal Herriko musika eskoletako 16 talde arituko dira 25ean". Europako Dantzen ikastaroak hilaren 27an eta 28an izango dira Patxi Monteroren eskutik, "eskolako txikienezako antolatuta".

Martitzenean izan zen *Alexander* teknikaren gaineko lehen saioa, goi mailako kontserbatorioetan ematen dena; gorputzaren kontrola izateko saioak dira.

MUSIKA > KONTZERTUA

Joseba Irazokik 'Eurria ari du' diskoa aurkeztuko du zapatuan Zabalotegi aretoan

Rock eta country estiloko abestiak izan arren, folka entzugai egongo da kantu gehienetan



Joseba Irazoki.

GOIENKARIA

N.M. > BERGARA

Berako sortzaileak *Eurria ari du* aurkeztuko du gaur Zabalotegi aretoan. 22:30ean hasiko da eta sarrerak salgai jarriko dira 5 eurotan.

2009. urte amaieran argitaratutako diskoa da eta artistak orain arte egin dituen lanen batuketak bat da. Xehetasunez beteta

ko abestiak eskainiko ditu gauean, folk akustikoa erabiliz gehienbat, baina baita rocka ere. Abeslaria izateaz gain, gitarrista ere bada eta 12 hariko gitarrarekin sorturiko melodia instrumentalak entzungo dira Zabalotegin.

Bakarlari gisa etorriko da oraingoan herrira, baina baditu beste proiektu asko: Mengele

Quarter, esaterako, free-jazz eta musika esperimental abstraktua jorratzen duen taldea.

Kontzertua izan arte itxaron nahi ez duenak Interneten eskuragai dauka diskoa.

BEART > ERAKUSKETA

Aire zabaleko erakusketa egingo dute domekan

Domeka goizean herriko artisten margolanak ikusgai egongo dira udaletxeko arkupeetan

keta eta bazkariaz gain hainbat azalpen emango dituzte margolaritza eta materialen gainean.

HAMAR URTEKO HISTORIA

Duela hamar urte baino gehiago sortu zen Beart. Zuloa elkarre gastronomikoan bildu ziren garai haietan Migel Okina, Luis Laskurain, Bingen de Pedro eta Antton Arrilaga, beste batzuen artean. Bertan erabaki zituzten elkarrearen nondik norakoak. "Margolarien gestionatutako lokal bat edukitzeko eta eskolaren emateko gogoa genuen".

N.M. > BERGARA

Iazko esperientziaren ostean, bigarren aldiz aire zabaleko erakusketa antolatu du Beart elkarrearen. Domekan izango da, udaletxeko arkupeetan, 11:00etatik 14:30ak arte.

Erakusketan parte hartuko dutenen artean izen ezagunak daude: Migel Okina, Luis Laskurain, Pello Alberdi eta Karlos Galarraga. Erakusketaren ondoren, igerilekuko jatetxean bazkalduko dute margolarien.

Bestalde, datorren urteari begira beste egitasmo bat dute: Beart elkarrearen eguna ospatzea eta ondorengo urteetan ere egitea. Apirilaren 18aren bueltan ospatu nahi dute eta erakus-

DATUA

25

PARTE-HARTZAILE

Beart elkarteko bazkide diren 25 artistak hartuko dute parte erakusketan. Horietako bakoitzak bi edo hiru lan eramango ditu arkupeetara eta ondoren elkarrekin egingo dute bazkaria.

> KINTADA

1927an jaiotako bazkariarako izenematea zabalik eguaztenera arte

1927an jaiotakoek, urtero moduan, kinto-bazkaria ospatuko dute datorren zapatuan, apirilak 24, Zumelaga jatetxean. 14:00etan izango da.

Bazkarian parte hartu nahi duenak hilaren 21a baino lehen 20 euroko diru sarrera egin beharko du Euskadiko Kutxan. Kontu korrante zenbakia hauxe da: 3035 0009 16 0091135650.

> ERRETIRATUAK

Bizkai aldera irteera egingo du San Joxepe elkarteak hilaren 28an

Apirilaren 28rako, Bizkai aldera joateko irteera antolatu du San Joxepe elkarteak. Portugaleteko zubia eta Karrantzako kobazuloak bisitatuko dituzte; horren ondoren, El Cartero sagardotegira joango dira bazkaltzera.

Gaur da izena emateko azken eguna, nahi duenak elkarrearen bulegoan eman dezake.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



Argazkia Kiñu

KIROLA > ESPELEOLOGIA

Datorren asteko espeleologia jardunaldietan 60 bat aditu

Aloña Mendi eta Besaide espeleologia taldeek antolatu dituzte, hilaren 23tik 25era

Jardunaldietan gogoan izango dute martxoan Udaltxen hil zen Joseba Iglesias arrasatearra

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aloña Mendi (AMET) eta Besaide espeleologia taldeek 28. Espeleologia Jardunaldiak egingo dituzte hilaren 23tik 25era. "Azken topaketa Gernikan egin genuen 2008an, baina Euskal Espeleologoen Elkargoak beste topaketa batzuen beharra zegoela esan zigun, eta elkarrekin antolatu ditugu", esan digute antolatzaileek.

Topaketa horiek ikerketarako eta elkarlanerako hitzordu "garrantzitsuak" direla diote, eta hiru helburu nagusi bete gura dituzte: elkarlanean aritzea jende eta material asko eskatzen duten ikerketa eremuetan; entrenamendurako, ezaguera-trukaketarako eta espeleo-laguntza emateko formaziorako aukera ematea; eta euskal espeleologia taldeen lagunarteko hartu-eman bultzatzea.

AMET eta Besaide taldeek eskerrak eman dura dizkiete jardunaldiak antolatzeko laguntza eman dutenei; hain zuzen ere, Larraña institutuari, Udalarari, Pago Uso elkarteari eta Aloña Mendi elkarteari.

ESPELEOLOGIAN ADITUAK

Topaketan parte hartzeko izenemate epea zabalik dagoen arren -http://sites.google.com/site/28espeleojardunaldiak/izen-emate-__inscripcion__-, espeleologian adi-

tu diren 60 bat lagun espero dituzte Oñatin, eta AMETek eta Besaidek egitarau zabal prestatu dute; hain zuzen ere, argazkiak egiteko irteera; esplorazio teknikak lantzeko saio teorikoa eta praktikoa; mendi ibilaldia; topo-kartografia; eta Gesaltza koban esplorazioa egingo dituzte hiru egunetan.

GESALTZAN

Esplorazio teknikak lantzeko bisaiok Espainiako Espeleologia Eskolako zuzendari tekniko Sergio García Dilsek emango ditu. Teknika eta materialen inguruko berrikuntzak ezagutzeko azalpen teorikoak eta tailer praktikoa egingo dituzte.

Bestalde, Gesaltzako laugarren solairuan, Lakuen Galerian, eskalada egingo dute, eta Arrikruzera bisita egingo dute argazki saioa egiteko. Azkenik, Arantzazu erreka eta Gesaltza-Arrikruz-Jaturabe multzo karstikoaren inguruak ezagutzeko irteera egingo dute.

LEHEN KONGRESUA, ARANTZAZUN

Euskal Espeleologoen Elkargoak 1956. urtean egin zuen lehen kongrasua Arantzazun. Ordutik 50 urte baino gehiago igaro arren, espeleologia jardunaldiak etengabe ospatu dira; besteak beste, Urbanan, Gorbean, Gesaltzan, Itxinan, Ataunen eta Aralarren.



Espeleosokorro jardunaldia Gesaltzan.

GOIENKARIA

Joseba Iglesiasen omenezko emanaldia

Hilaren 23tik 25era egingo dituzten espeleologia jardunaldiak martxoan Udaltxen hil zen Joseba Iglesias arrasatearraren omenez egingo dituzte. Horren harira, diapositiba emanaldia egingo dute Arrasateko gaztetxean hilaren 23an, 18:30ean. Sergio García Dilsek *Exploraciones espeleológicas del CAVEX Team. En busca de la sima más profunda del planeta* delako ikus-entzunezkoa eskainiko du.

Bestalde, hilaren 24an *La sima Krubera-Voronya (-2.191). Record del mundo de profundidad en el Cáucaso* ikus-entzunezkoa eskainiko du García Dilsek Oñatiko kultura etxean, 19:30ean.

Lourdesera doazen gaixoendako, 1.670 euro

Maiatz bukaeran Lourdesko erromesaldian parte hartuko duten gaixoen bidaiako gastuak ordaintzeko diru-bilketa egin zuten domekan. Guztira, 1.670 euro batu zituzten herriko elizkizunen bukaeran erromesaldian parte hartuko duten laguntzaileek. Iaz jaunartzea hartu zuten hamar neska-mutikoren laguntza izan zuten.



MIREIA BIKUÑA

POLITIKA

Aurrez aurreko bisitak, berriro

Espainiako Gobernuak eten egin ditu ukimenezko miaketak

M.B. > OÑATI

Euskal Preso Politikoko Kolektiboa (EPPK) aurrez aurreko bisitak egiten hasiko da berriro. Izan ere, Espainiako Gobernuak 2009ko urrian ukimenezko miaketak egiteko hartutako erabakia bertan behera utzi du. Aurrerantzean arrazoituta-ko miaketak, zehatzak eta ukimen bakoak izango dira.

MIAKETAK, BAI

Dena den, Oñatiko preso batzuen senideek miaketak jasan dituzte azken egunetan. Aurreko aste bukaeran esaterako, Joseba Arregi oñatiarra aurrez aurreko bisita barik geratu zen Jaengo espetxean. "Oraindik egoera ez da erabat normaldu", diote.

> ZERBITZUAK

Udaltzainak dagoeneko hasi dira lanean asteburuetan

Apirilaren 1ean hasi ziren udaltzainak lanean aste bukaeretan. Horren harira, zerbitzua emango dute zapatuetan 07:30etik 21:30era eta domeketan 09:30etik 21:30era. Gainera, astelehenetik egubakoitzera euren egoitzan egongo dira 07:00etatik 21:30era. Jaiegunetan ere lanean jardungo dute.

Dena den, oraingoz ez dute zerbitzurik emango gauetan. Egun 11 kide ditu Oñatiko Udaltzaingoak, eta 24 orduko zerbitzua emateko hamar udaltzain gehiago beharko dituztela esan dute udal arduradunek.



SORGIN ONA

Tarot kartak irakurtzen ditut

Ekonomikoa

619 11 53 29

Agustin Goenaga > Argazkilaria

"Erakusketan nagusi dira Gabriela Mistralen bi zutabe inportanteenak: umeak eta Txile"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Agustin Goenaga oñatiarrak argazki erakusketan jarri du ikusgai kultura etxean. Gabriela Mistral ezizenazuen euskal jatorriko poeta txiletarraren omenezko erakusketa da *Gabrielaren umeak, Mistralen Txileak* delakoa. Harekin egin dugu berba.


Gabriela Mistralen omenezko erakusketa egin duzu. Nolatan?

Iaz egon nintzen Txileko Elqui haraneko Vicuña herrian. Han jaio zen Gabriela Mistral ezizenazuen Lucila Godoy, eta han dago haren izena duen eskola. Poeta eta pedagogoa izan zen, eta umeekin egindako lanagatik nabarmendu zen. Hango umeei argazkiak egin nizkien, eta Txileko beste hainbat erretraturekin Mistralen omenezko erakusketa antolatu dut.

Erakusketak bi zati ditu.

Izenburuak dioten bezala, lehen zatian *Gabrielaren umeak* daude. Neska-mutikoen erretratuak dira nagusi. Mistral nekazal eskualdeetako irakasle izan zen gaztetatik. Haurren aldeko ahalegin handia egin zuen; besteak beste, Espainiako gerratik ihesik joandako ume euskaldunei laguntza eman zien.

Bigarren zatian, Txileko paraje ezberdinak dira nagusi. Mistralek Txileko eskualde ezberdinetan lan egiteko aukera izan



Agustin Goenaga, erakusketako argazki batekin.



MIREIA BIKUÑA

zuen, eta lurraldea goitik behe-za ezagutzeko aukera izan zuen. Horren guztiorren lekuko dira *Mistralen Txileak* ataleko argazkiak.

Argazkiei laguntzen Mistralen olerki batzuk jarri dituzu.

Haren olerki bildumaren pasarte batzuk aukeratu, eta erretratuarekin jarri ditut hobeto ulertzeko, argazkiek ez dute-eta izenbururik.

"Mistral nekazal eskualdeetako irakasle izan zen gaztetatik"

"Erakusketa Txileko Vicuña herriko museoan eta New Yorken jarri nahiko nuke"

Lehen aldiz jarri duzu ikusgai Mistralen gaineko erakusketak. Beste toki batzuetara eramango duzu?

Oñatin egongo naiz maiatzaren 2ra arte, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Etorrizunari begira, nire asmoa da erakusketa Txile- ra, Vicuña-ara eroatea; hain zuzen ere, Lucila Godoy museora. Gainera, New Yorken ere erakutsi nahiko nuke. Baina ez dut erabaki noiz izango den.

oharrak

DEIALDIA

> 1961. eta 1962. urteetan jaiotako afaria

Bi urteotan jaiotakoak maiatzaren 8an bilduko dira Etxeberria jatetxean. Meza egingo dute Agustindarren elizan, 19:30ean. Interesatuek 943 78 13 93 (Santi) edo 943 78 34 66 (Jesus) telefonoetara dei dezakete.

DEIALDIA

> Elikaduraren gaineko hitzaldia Txantxiku Ikastolako aretoan

Zure elikadura zure bizitza da delako hitzaldia egingo du Maitane Arrondo dietistak, hilaren 20an, 18:30ean.

DEIALDIA

> 1969ko kintoendako deialdia

Maiatzaren 29an bilduko dira Etxeberria jatetxean. Izenemate epea zabalik dute maiatzaren 20ra arte. 25 euro aurreratu beharko dituzte Euskadiko Kutzako 30350005300051040936 kontuan.

beteranuak

EMAITZAK

KOPAKO FINAL 1/4AK

Txuskos-Lozorromo 1-0
Indar 85-Ankarko 7-0
Xaguxar-Albok 3-2
Etxaitat-Gaur Bai 2-3

PARTIDUAK

LIGA AZKEN FASEA, APIRILAK 17

13:00:

Sasquatch-Dollygans/ Moli

14:30:

Txarrixak-Nandrolona/ Arrilla

16:00:

Joxely-Kalañatasaray/ Lazkano

17:30:

Zorrobero-Gibel Boys/ Mattin

> Arduraduna 13:00-14:30:
Txuskos

> Arduraduna 16:00-17:30:
Gaur Bai

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1. Gibel Boys	3	1
2. Zorrobero	1	1
3. Joxely	1	1
4. Kalañatasaray	0	1

B TALDEA	P	J
1. Sasquatch	3	1
2. Dollygans	3	1
3. Txarrixak	0	1
4. Nandrolona	0	1

GOLEGILE ONENAK

1. Joseba Albizu (Doolygans)	16
2. Joseba Agirre (Txarrixak)	13
3. Gorka Zelaia (Joxely)	11
4. Carlos Gonzalez (Zorrobero)	8
5. Yerai Varela (Zorrobero)	8

Azken faseko bigarren jardunaldia

Aste Santu aurretik jokatu zituzten kopa txapelketako final laurdenak, eta bihar, ligako bigarren faseko bigarren jardunaldia jokatuko dute. B taldean Sasquatch eta Doolygans taldeek elkarren kontra jokatuko dute. Biek ala biek irabazi zuten lehen partidua. Hortaz, bihar irabazten duenak final erdiotarako txartela lortuko du.

Bestalde, A taldean sailkapeneko lehen bi taldeak buruz buru neuruko dira. Gibel Boysek irabazten badu finalerdietarako sailkatuko da.

Antolatzaileek zehaztutako egutegiaren arabera, finalak maiatzaren 8an eta 9an jokatuko dituzte.

> DEIALDIA

Musika eskolako ikasleak Soroluzeko Trikitilarien topaketan

Jose de Azpiazu musika eskolako 45 trikitilari eta pandero Soroluzeko trikitilarien topaketan parte hartuko dute bihar.

Oñatiarrek egun osoko jaialdian parte hartuko dute, Gipuzkoa osoko beste hainbat trikitilariarekin. Soroluzen ibiliko dira, kalerik kale, fandangoak, arinarinak, kalejirak eta beste hainbat kantu eskaintzen.

> KULTURA

'Aitarekin bidaian' antzezlanerako sarrerak salgai kultura etxean

Kultura etxean eros daitezke Hika antzerki taldeak hilaren 25ean egingo duen *Aitarekin bidaian* emanaldirako sarrerak. Hain zuzen ere, hamar eurotan eros daitezke.

Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza eta Fermin Muguruza dira protagonistak. Antzezlanak X. Donostia Antzerki Saria irabazi zuen.

ZELAIA
ONATI
www.zelaia.net

40
urte
elkarrekin
1970-2010



Euskadi etorbidea 3 - Oñati
943 71 89 49 - 943 78 36 99



Erreforma integralak

gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko

Berezaio auzoa - Oñati
943 78 20 08

UDALA > OSOKO BILKURA

Udalbatzak bost milioiko aurrekontua onartu du

Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketetara 2,5 milioi inguru bideratuko dira; inbertsioetarako oso gutxi geratuko da: %4, hain justu ere

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Kostata, baina Eskoriatzak dagoeneko badu udal aurrekontua. Martxoaren 31n egindako osoko bilkuran 5.062.084 euroko behin-behineko kontuak onartzea erabaki zuten, pasa den urtean baino %3,3 gehiago (4.952.400).

Arloka, Hirigintza, Obra-zerbitzu, Ingurumen eta Elizateetara bideratuko da diru gehien: 1.898.690 euro, hain justu ere. Kultura, Euskara, Gazteria, Jai, Hezkuntza, Kirol, Ibarraundi museo, Osasun eta Teleskon, berriz, 1.766.715 euro gastatuko dituzte. Kapituluak, berriz, onda-

sun arrunten eta zerbitzuen erosketak hartuko du zati handiena: 2,5 milioi inguru. Esaterako, Atxorrotzeko azterketa arkeologikoarekin jarraitzeko, 20.000 euro jarriko dira, eta elizateetako ur deposituak konpontzeko, 48.000 euro. Etxeko laguntza zerbitzuek eta kirol jarduerak ere gora egingo dutela aurreikusi dute Udalean.

EA ETA PSE-EE, ALDE

Pedro Lasagabaster alkatea pozik azaldu da eta azpimarratu nahi izan du agintaldia hasi zutenetik babes handien lortu duen aurre-

kontua dela aurtengoa. Udal Gobernuko taldearen (Pedro Lasagabaster, Dorleta Lezeta, Edorta Barandiaran, Ander Agiriano eta Leire Okarantza), EAren (Maider Otamendi) eta PSE-EEren (Iñaki Pierrugues) aldeko botoekin eta EAJren (Aitor Urrutia eta Begoña Eraña), EB-Berdeak taldearen (Juan Luis Merino) eta H11-ren Karmelo Lezetaren abstentzioarekin onartu zen.

ZUBIETAKO LABEA, UDARAKO

Lasagabasterrek nabarmendu du aurrekontu "zailak" izan direla,

gastu korranteak diru gehien eraman duelako eta inbertsioetarako oso gutxi geratu delako: aurrekontuaren %4, hain justu. Alkateak azpimarratu du 55.000 euro bideratuko dituztela Zubiateko labea eraberritzeko lanetarako. Gaineratu du San Pedrotarako proiektu hori amaituta egotea espero dutela.

Horrez gain, 59.000 euro jarriko dituzte Erkotx baserrira gasa eta ura eramateko, 19.000 euro Intxaurtxueta aparkalekuak egiteko lursail bat erosteko, beste horrenbeste elizateetarako baserri eta auzoetako seinaleztapena jartzeko, 10.382 euro elizateetako argiteria publikoa berri-tzeko eta 14.000 euro Dorletako bidegorri ingurunean hiruga-

rren adineko pertsonendako parkea egiteko.

ERREKLAMAZIO EPEA ZABALIK

Aurtengo aurrekontuen egitasmoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen apirilaren 9an. Aldizkarian kaleratu eta hurrengo lanegunetik hasita (apirilak 12) hamabost eguneko epea dute eskoriatzarrek proiektua aztertzeko, eta, hala badagokie, erreklamazioak aurkezteko. Hau da, hilaren 30era arte egongo da udaletxean proiektua aztertu nahi duenaren eskura.

Epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, aurrekontua onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Aurrekontua, arloka

	KOPURUA EUROTAN
Hirigintza, Obra-zerbitzuak, Ingurumena, Elizateak	1.898.690
Ogasuna eta Enplegua	461.734
Gizarte Ongizatea, Emakumea, Osasuna	391.644
Kultura, Euskara, Gazteria, Hezkuntza, Kirola, Telesko	1.766.715
Administrazio Orokorra	543.299
GUZTIRA	5.062.084

ITURRIA: ESKORIATZAKO UDALA

oharrak

UMEAK

> Harizko eskumuturrak egingo dituzte gaur Tortolis ludotekan

Gaur, egubakoitza, harizko eskumuturrekoak egingo dituzte umeek ludotekan, 18:00etan.

KIROLAK

> Kirol hitzordu asko asteburuan

Bihar, zapatua, hitzordu bi daude kiroldegian: 16:00etan, gazte mailako areto-futbol partidua dago Eskoriatza eta Gamon Informatica Amara artean; eta 18:00etan, Euskal Ligako norgehiagoka, Eskoriatza eta Iralabarri artean.

Domeka goizean eskola arteko areto-futbol txapelketa dago; 09:30etik 10:00etara finalaurrekoak jokatu dituzte Calasanzek, Eskoriatza-Arizmendik, Gernikak eta Aretxabaletak. 11:30ean, 3. eta 4. postuetarako partidua izango da eta ordubete geroago, finala. Arratsaldean, berriz, Eskoriatza Hiria areto-futbol txapelketa jokatu dute etxeok 21 urtetik behe-

rakoan euskal selekzioaren kontra, 17:00etan.

GAZTEAK

> Sexologia eta masaje tailerrak daude egunotan gaztelekuan

Gaztelekuan sexologia tailerra izango dute bihar, 18:00etan. Domekan, ordu eta toki berean, masaje tailerra egingo dute.

IRTEERA

> Aranguren ezagutuko dute etzi

Aitzorrotz kultura elkarteak irteera gertatu du domekarako, Aranguren mendira. 09:30erako jarri dute hitzordua, herriko plazan.

ZERGAK

> Ibilgailuen zerga gertu

2010. urteari dagokion traxio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar da. Ordainketa helbideratuta dute nei maiatzaren 5ean egingo zaie kobrantza. Gainerakoek egun hori arte dute borondatezko ordainketa egiteko epea.

KULTURA > IRAKURZALETASUNA

'Bat ekarri, bi eruen' azokarako liburuak martitzenara arte utz daitezke liburutegian

M.B. > ESKORIATZA

Asteon hasi dira herrian aurtengo *Kataia eten barik* egitasmoa ekintzak. Lehiaketa batekin eman diote hasiera. Martitzenetik egunera bitartean, Eskoriatzako webgunean, kultura etxean eta liburutegian Karmele Jaioren *Musika airean* liburuaren gaineko lau galdera jarri dituzte; lehiaketan parte hartu nahi dutenek hilaren 20a baino lehen erantzun beharko dituzte galderarik.

KARMELE JAI, EGUNEAN

Lau galderak zuzen erantzuten dituzten artean liburu elektronikoa zozketatuko dute. Zozketa apirilaren 22an, eguna, egingo dute, Karmele Jai idazleak, 18:30ean, kultura etxean egingo duen hitzaldiaren ostean.



Liburu azoka herriko plazan.

GOIENKARIA

Bestalde, egubakoitzean, *Bat ekarri, bi euren* liburu azoka egingo dute herriko plazan, 18:00etan. Interesatuak martitzena, hilak 20, baino lehen eraman beharko dituzte liburutegira han trukatu

gura dituzten liburuak. Utzitako liburu bakoitzagatik bi txartel jasoko dituzte, azoka egunean bi liburu hartu ahal izateko. Egun berean, collage tailerra egingo dute plazan bertan.



ESKORIATZA Elorreta S. Coop.
ETXEBIZITZAK KOOPERATIBAN
KOSTE PREZIOAN

ELORRETAN, ERDIGUNETIK GERTU 2 ETA 3 LOGELETAKO ETXEBIZITZAK



Iturriotz, 11 • Arrasate
www.inmoarrasate.com

943 77 14 11



Jendea Arkupeko lehen solairuan dagoen Udal Liburutegian eguztzen ilunkeran.

M.A.

KULTURA > LIBURUTEGIA

Bikoiztu egin da mailegu kopurua liburutegian, Arkupen dagoenetik

Urtean erosten duten materiala ere bikoiztu egin da, nahiz eta aurten murrizketa izan aurrekontuak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Liburuaren Nazioarteko Eguna da hilaren 23an eta Udal Liburutegiak aparteko ekintzarik egingo ez duen arren, badu pozik egoteko arrazoia: bikoiztu egin dela maileguren hartutako kopurua, hain zuzen. Bi urte beteko ditu Udal Liburutegiak ekainean egoitza Arkupen duenetik. Eta aldatetarekin, irakurleak eta erabiltzaileak irabazi ditu, maileguak bikoizteraino.

ORDUTEGIA LUZATU NAHIA

Arkupe kultura etxeko lehenengo solairuan dago liburutegia eta elkarrengandik bereiztutako hiru gune ditu: helduena; gazteena; eta Txiki Txokoa, 0 eta 6 urte arteko umeendako. "Egoitza zaharrenean ere bagenituen antzeko txokoa, baina ez bereiztuta, eta orain askoz ere leku handiagoa dute bakoitzean", dio Joseba Lopez de Armentia arduradunak.

Bi langilek egiten dute lan eta hirugarren bat gustura hartuko lukete ordutegia luzatu eta zapatuetan zabaltzeko: "Aspaldiko eskaera da, baina oraindik ez daukagu baietarik, dirulaguntza baten zain daudelako. Lortuz gero, zapatu goizetan zabalduko genuke eta astegunetako ordutegia luzatu".

Lopez de Armentiak jakinarazi du maileguren izugarri egin dutela gora azken bi urteotan: "Ia bikoitza da orain". Maileguren bakarrik ez, urtean erosten duten materiala ere bikoiztu egin da: "Arkupen gaudenetik aurrekontua handitu egin digute eta ondorioz material berri kopuruak gora egin du. Filmak eta musika diskoak askoz gehiago ditugu orain", dio arduradunak. Hala,

ESANAK

"Ordenagailuak beti daude beteta eta hobeto antolatzeko ordubeteko txandak ematen ditugu"

Joseba Lopez de Armentia >
Liburutegiko arduraduna

2007an ia 700 liburu, film eta disko erosi zituzten; 2008an, ia 1.500; eta 2009an, 1.300. Aurten, krisia dela eta, murrizketak egin dituzte partida askotan eta liburutegiko aurrekontuak ere izan dela beherakada onartu du Lopez de Armentiak.

HAMABI ORDENAGAILU

Liburutegiko erabiltzaileak bertara lanera ere joaten dira. Izan ere, zortzi ordenagailu daude helduen gunean eta lau gazteenean: "Beti daude beteta eta hobeto antolatzeko ordubeteko txanda ematen diegu helduei eta ordu erdikoa gaztetxoek".

Txiki Txokora, gainera, hila-bete guztietan etortzen da ipuin kontalari bat. Bihar, esaterako, Ixabel Millet izango da (11:30). "Baina gurasoei ahaztu egiten zaie liburutegiko txokoa dela, eta ez jolasparkea", gaineratu du Lopez de Armentiak.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PATXI CASTRO



Era guztietako aulkien konponketa
• Tapizatu lanak
• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
• Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

UDALA > LANPOSTUA

Informatikari posturako azken azterketa gaur da

Hiru lagunek egingo dute eta puntu gehien jasotakoa maiatzean hasiko da lanean

M.A. > ARETXABALETA

Informatikari lanak egingo dituen lagun bat hartu gura du Udalak eta urtarrilean lehiaketa deia egin zuen. Bederatzi lagun aurkeztu ziren lehen azterketara eta gaur goizean azken proba egingo dute aurreko azterketak gainditutakoek; hiruk, hain zuzen.

Azterketa praktikoa da gaurkoa eta epaimahaiko kideek astelehenean zuzenduko

dituzte. Behin oposizio fasea bukatuta, lanpostura aurkeztutako hiru lagun horien merituak baloratuko dituzte. Eta jasotako puntu guztiak elkar-tu ondoren onena hautatuko dute lehenbailehen hasteko lanean; hau da, maiatzean. Gaur azken azterketa egiteko aukera daukaten hiru lagunak Aretxabaletan bizi dira.

EGUN ERDIKO JARDUNA

Egun erdiko lan jarduna izango du udal langilea izango den informatikariak eta udaletxe eta udal eraikinetako material informatiko guztiaren ardura hartuko du bere gain. Enpresa batek egiten dio orain jarraipena material horri.

> PARROKIA

Zapatuetako mezen eta aste bukaerako hiletan ordutegia aldatu egin du Leintz Pastoral Barrutiak

Aretxabaletako Andre Mariaren Zeruratze parrokiaren zapatuetan esaten dituzten mezak 19:00etan dira hilaren 10a ezkerre, eta ez 19:30ean. Hala erabaki du Leintz Pastoral Barrutiak.

Aste bukaerako hiletan ordutegia ere aldatu egin dute: zapatuetan 19:00etan izango dira eta domeketan, 18:30ean. Gainerako meza eta ospakizunak ez dute izango aldaketarik.

ARETXABALETA
Lanbide Eskola

Goi mailako Lanbide Heziketarako Berriazko Institutua

Bi baldintza hauek betetzen badituzu:

- > Gutxienez 18 urte izatea
- > Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:
 - 2. BBB
 - LH-1
 - 2. IEE
 - DBH
 - Sarbide proba gaindituta izatea

Lan egiten duzun bitartean ERIZAINZAKO ZAINZTA OSAGARRIAK titulu ofiziala ateratzea erraza izango da zuretzat.

Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide proba prestatu nahi duzu?

Nahikoa duzu 18 urte edukitzea.
Etor zaitez Aretxabaleta Lanbide Eskolara eta informatu Inskripzioak apirilaren 30era arte.

Etxebarri auzoa z/g
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
webgunea: www.iaretxabaleta.com
e-posta: ia@iaretxabaleta.com

AISIALDIA

Udalekuetan
begirale
izateko deia

Curriculumak
Gazteria Zerbitzura
bideratu behar dira
hilaren 30erako

M.A. > ARETXABALETA

Uztailen egingo dituzten udaleku irekietan neska-mutikoekin lan egiteko begiraleak behar ditu Gazteria Zerbitzuak. Astelehenean zabalduko dute izenemate epea eta hilaren 30erako aurkeztu behar dituzte eskaerak curriculumarekin batera Gazteria Zerbitzuan -Arkupeko atzeko partean-: gazteria@aretxabaleta.net.

BI BALDINTZA

Uztailaren 2tik 23ra izango dira aurtengo udalekuak eta 2 eta 14 urte arteko neska-mutikoak elkartuko dira. Haien begiraleak bi baldintza bete beharko dituzte: euskaraz jakitea eta 18 urte beteta izatea. Gainera, ikasketak eta halako lanetan duten eskaermentua baloratu egingo dituzte antolatzaileek.

INTERNET > KZGUNEAN

Sare sozialen bitartez jarrai
daiteke KZgunearen jarduna

Facebook eta Twitter sareen bitartez jaso daitezke Markole auzoko KZgunearen albiste eta kontuak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Aretxabaletako KZgunearen gaineko kontuak sare sozialen bitartez jarrai ditzakete orain erabiltzaileek. Facebook -www.facebook.com/aretxabaletakz- eta Twitter -twitter.com/aretxabaletakz- sareetan aurkituko dituzte KZguneko kontu guztiak.

ONA TXARTELA EGUBAKOITZETAN

Sare sozialak ezagutu eta beste hainbat ikastaro egiteko arratsaldeetan dago zabalik Markole auzoan dagoen KZgunea apirilaren (16:00-20:00). Hona egingo dituzten ikastaro batzuk: Interneten gainekoa, astelehenean hasi eta hilaren 30era artean (18:00-20:00); Google Maps zelan erabili jakiteko, martitzenean (16:00-18:00); eta Twitter sarearen gainekoa, hilaren 26an (16:00-18:00).

KZgunean, gainera, Izenpe txartela eta ONA txartela eskura



Aretxabaletako KZgunea eguazten arratsaldean.

M.A.

daitezke, administrazioarekin eta hainbat erakunderekin gestioak egiteko oso baliagarriak. Eta bi txartel horiek erabiltzen erakusteko ikastaro bereziak eskainiko dituzte (bi ordukoak). Aitor Madrid dinamizatzaileak jakinarazi du ONA txartela apirilko

egubakoitzetan bakarrik lor daitekeela (16:00-18:00).

Gainera, IT txartela eskuratzeko azterketak egongo dira egunotan. Argibideak gura dituenak KZgunera dei egin dezala (943 25 23 51) edo mezua bidali: tutor.aretxabaleta@kzgunea.net.

oharrak

IKUSKIZUNA

> Ipuin kontaketa umeendako bihar liburutegian

Ixabel Millet kontalariak *Martin txiki eta Marizikin* ipuina kontatuko die 3 eta 10 urte artekoek liburutegian (11:30). Sarrera, debalde.

ZINEMA

> 'Invictus' eta 'Planet 51' filmak aste bukaeran

Helduek *Invictus* filma izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Eta umeek *Planet 51* domekan (17:00).

DANTZA

> Munduko dantzen ikastaroa emango dute bihar

Jaiki elkarteak antolatuta munduko dantzak ikasiko dituzte Javier Muela irakaslearekin, kuarter zaharrean.

AISIALDIA

> Liburu truke azoka egiteko liburuak jasotzen


Liburu truke azoka txikia egingo dute ludotekan hilaren 23an. Horretarako liburu zaharrak jasotzen dabilta -hilaren 22 arte- ludotekan.

GAZTEAK

> Drogen gaineko tertulia

Drogak izango dituzte berbagai eguaztenean gaztelekuan 15 eta 16 urtekoek.

ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA



ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA



FAGOR
banatzaile ofiziala

expert
banatzaile ofiziala

Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABALETA • ARRASATE
1950•2010

60 urte

Igor Larrea eta Iban Unanue > Futbol entrenatzaileak

"Geratzen diren bost partiduetatik bi irabazita mailari eutsiko diogula uste dugu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Azken bi partidua irabazi ostean, azken postuetatik urrundu eta *argia ikusi* du Antzuola futbol taldeak. Bolada ona jarraitzeko, baina, beharrezkoa dute zapatuan Amaiak Bat taldea mendean hartzea.

Bi partidu irabazi ostean *argia ikusi* duzuela esan daiteke?

Iban Unanue: Bai; zuloan sartuta geunden, eta bi partidu irabazita azkeneko postuetatik irten gara. Orain, atzekoekiko alde hartu dugu.

Bost partidu falta dira liga amaitzeko. Nola planteatu dituzue partidukoak?

I.U.: Etxean hiru partidu ditugu; guk uste dugu bi irabazita nahikoa izango dugula mailari eusteko. Gainera, aste honetan gure atzetik dagoen Amaiak Bat taldearen aurka jokatu behar dugu. Hori irabazita lasaitasuna hartuko dugu.

Igor Larrea: Ez genuen espero garai honetan hain estu ibiltzea. Kalitate aldetik, uste genuen iazkoa baino talde hobea genuela; baina, bestalde, ligako beste taldeak iazkoak baino gogorra-koak dira.

Geratzen diren partidua nahiko samurrak direla esan daiteke?

I.L.: Nik ez dakit zer komeni zaigun gehiago: gure pareko taldeen aurka jokatzeko edo indartsuenen aurka. Lehenengoaren aurka askoz motibazio handiagoarekin jokatzeko dugu.

I.U.: Gainera, gure parean dauden taldeek ere asko dute jokoan. Baina egia da azkeneko partidua izan ezik beste guztiak samurrak direla.

I.L.: Polita izango litzateke azkeneko partidura –maiatzak 15, Anaitasuna– gu lasai iristea, eta Anaitasunak preferente mailarako igoera eta lidergo izatea jokoan.



Igor Larrea eta Iban Unanue, Estalan.

A.E.

"Uste baino okerrago ibili gara: jokalariek garrantzitsuak min hartuta izan ditugu"

"Estala zelai txikia denez, partidua irabazteko gakoak etxean egon behar du"

Liga hasieran uste baino denboraldi kaskarragoa izan da aurtengoa. Zein zen zuen helburua?

I.U.: Betiko moduan, lehenengo helburua maila mantentzea zen. Iaz ere helburu bera genuen; eta, liga gaizki hasi arren, bigarren itzuli ona eginda seigarren postuan geratu ginen. Erdetik gora ibiltzea polita izango litzatekeela esan genuen.

Non egon da akatsa?

I.L.: Lehenengo zartatekoa urrian hartu genuen. Jon Godoy gol asko egiten zebilen, baina min hartu zuen. Josu Zubikarai ere min hartuta dago, eta gure-tako oso jokalariek garrantzitsuak da, diferentzia markatzen duena.

I.U.: Behin bolada txarra hartuta, zaila izaten da gora egitea. Bigarren itzulian gora egingo genuelakoan geunden, baina behera egin dugu.

Estala zelai txikia izanda, etxeko partiduetan dago gakoak?

I.G.: Bai, gu zelai txikian jokatzea ohituta gaude, eta hori da gure alde duguna. Gertatzen dena da kanpora goazenean zelaiak luzeak izaten direla.

I.U.: Baloia area barruan dago uneoro, eta horregatik estrategia asko erabiltzen dugu. Gol asko egiten dugu etxean, batez ere estrategia jokaldietan. Etxean puntu asko ateratzea da gakoak.

AZPIEGITURAK > AHT ETA AUTOBIDEA

Herritarrek AHT proiektuari jarritako hamar alegazio jaso dituzte udaletxean

Autobidearen gaineko alegazioak, ostera, hilaren 20ra arte aurkez daitezke

A.E. > ANTZUOLA

Herritarrek AHT proiektuaren gainean jarritako hamar alegazio jaso dituzte udaletxean. Bergara eta Antzuola tarteko desjabetzeen espedienteak bidali zuten Udalera Aste Santu aurretik; hala, Udalak proiektua ikusgai izan du egunotan, eta, gainera, herritarrei informazioa errazteko asmoz hitzaldia egin dute.

UDALAREN ALEGAZIOA

Udalak, berriz, alegazioa jarriko dio Abiadura Handiko Trenaren proiektuari, eta baita autobideari ere. "Eskatuko dugu ura, bideak... mantentzea", azaldu du Valen Moñux

Udaleko aparejadoreak. Gainera, eskatuko dute bi proiektuak koordinatuta egotea, eta obra-hondakindegia bera erabil dezatela.

Gainera, AHT proiektuari "oposizio zuzena" egingo dio Udalak.

AUTOBIDEA: APIRILAK 20

Beasain-Durango autobideko Bergara eta Zumarraga arteko zatiaren gainean alegazioak aurkezteko epea apirilaren 20an, martitzena, amaituko da.

Herritarrek Udalera jo dezakete alegazioa aurkezteko; modu horretan, Udala arduratuko da alegazioa idazteaz eta tramitatzeaz.

LIBURUTEGIA

Beste herrietako liburuak har daitezke

A.E. > ANTZUOLA

Udal Liburutegiak zerbitzu berria jarri du martxan. Aurrerantzean, beste liburutegi batzuetako liburuak eskuratu ahal izango dira Antzuolan bertan. Hori hala da Udal Liburutegia ELSN sarean sartu delako –erkidegoko udal liburutegiak–. Gaur egun 800 erabiltzaile inguru ditu Antzuolako liburutegiak.

KZGUNEA

Apirileko zerbitzuari dagokionez, KZgunean egongo da tutorea hilaren 6an, 13an, 20an eta 27an, 09:00etatik 13:00etara. ONA txartela egiteko NA eta osasun txartela aurkeztu behar dira.

oharrak

OSPAKIZUNA

> Aiherrara joateko autobusa 08:30ean irtengo da

Domekan Aiherrara joateko autobusa 08:30ean irtengo da Sagastitik.

HITZALDIA

> Boluntariotzaren gaineko hitzaldia, atzeratuta

Oraindik zehazteke dago data berria.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:

Buztana eta txuleta (zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industrialako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
eta
bernitzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

BERTSOAK > ARABAKO KUADRILLA ARTEKO TXAPELKETA

Aramaioko bertsolariak gertuago daukate maiatzaren 8ko finala

Finalerdietako lehen puntua lortuta, aramaioarrek Amurriokoen kontra neurtuko dituzte indarrak hurrengo domekan

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Andere Arriolabengoa, Manex Agirre, Iker Agirre eta Xabi Igoa bertsolariak Aramaioren aldeko lehen puntua eskuratu zuten domekan Gasteizko Kakiturri-Ehari taldearen aurka, Arabako Kuadrilla Arteko Bertso Txapelketaren finalerdietan. Zigoitiko aretoan jokaturako lehen finalerdian Aramaiok 581,5 puntu eskuratu zituen eta Kakiturri-Eharik 568,5.

Gasteiztar eta aramaioarrek batera, Amurrioko Altubepekoak da finalerdietako ligaxkarako sailkatutako hirugarren taldea. Aurretik, aramaioarrek Izarra eta Elosuko Iturrigorri gainditu behar zituzten finalerdietarako sailkatu ahal izateko. Aramaio eta Altubepekoak aurrez aurre izango dira hurrengo domekan, hilaren 25ean. Aramaioarrek nagusitzen badira, finalean izango ditugu.

Finala maiatzaren 8an jokatuko da, Gasteizen. Kuadrilla Arteko Bertso Txapelketaren lehenbiziko ekitaldia da aurten goa. Arabako Bertsozale Elkar-teak dihardu antolaketa lanetan.



Aramaioko bertsolariak, aurreko saio baten.

GOIENKARIA

UDALEKUAK UZTAILEAN

Bestalde, 3-12 urte bitarteko neska-mutikoendako udalekuak uztailearen 7tik 20ra izango dira. Izenematea (36 euro) San Martin eskolan egin daiteke, maiatzaren 7a baino lehen. Udalekuekin lotuta, begiraleak behar dituzte. Argibideak 945 44 53 74 zenbakian.

XABOEN TAILERRA, GAUR

Sentsibilizazio kanpainaren barruan, xaboiak egiteko tailerra egingo dute gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:00etan. Sukaldean erabilitako olioarekin xaboi naturalak egiten ikasteko aukera izango dute partaideek gaurko saioan.

Gimnasia egiteko aparailuak

Bereziki adinekoei zuzendutako gimnasia aparailuak jarri berri dituzte Pedro Ignacio Barrutia kalean; babes ofizialeko etxeen ondoan, hain zuzen ere. Inguru horretako urbanizazio lanekin amaitzeko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak jarri ditu gimnasia aparailuak. Modu erosoan, jarrita ere, gimnasia egin eta giharrak astintzeko aukera daukate bertara joaten direnek. Alboko argazkian daukazu jarritako aparailuetako bat.



JONE INUNTZIAGA

AZPIEGITURAK > HOBETZE LANAK

Errepide alternatiboa, itxita hurrengo aste bukaeran

E.M. > ARAMAIO

Aramaioko Udalak aditzera eman duenez, hurrengo asteburuko zapatu eta domekan, apirilaren 24an eta 25ean, itxi egingo dute Untzilla eta Zabola arteko errepidea. Hain zuzen ere, asfaltatze lanengatik itxita izango da errepidea bi egunetan, 08:00etatik 20:00ak bitartean. Beraz, Arrasatera joan ahal izateko Legutiorako errepidea erabili behar izango dute gidariak bi egunez.

Udaleko iturrien arabera, oraindik ez da guztiz zurrta egun horietan asfaltatzea egingo dutenik. Edozelan ere, martitzenean, hilaren 20an, Udaleko webgunean emango dute

horren berri. Interesatuak www.aramaio.org helbidean jaso ahal izango dituzte argibideak. Era berean, Udalak gidariari zuzendutako oharrak jarriko ditu hurrengo astean Aramaioko kaleetan eta herriko beste hainbat puntutan.

HOBETZE LANETAN

A-2620 errepidea itxita dagoenetik Aramaiotik Arrasatera joan-etorria egiteko bide alternatiboa erabiltzeko behar da daude gidariak. Aipatutako zatian hobekuntza lanetan dihardute azken asteotan. Kataiatik Untzillara arteko errepidea ere zabalduko dute, besteak beste.

> IRTEERA

Itur-Zuri emakume taldeak apirilaren 24an Aiara eta Zarautzera joateko irteera antolatu du

Itur-Zurik apirilaren 24an Aiako lore azoka ikustera joateko irteera iragarri du. Goizean zehar azoka ikusi ondoren, bazkaria egingo dute Zarautzen eta itzulera 19:00etan izango da. Prezioa 40 euro da eta izenematea apirilaren 20ra arte dago zabalik ondoko zenbakietan: 670 43 16 62 (Ana) eta 945 44 52 81 (Amelia).

> UDALA

Ibilgailuen gaineko zerga apirilaren 26tik ekainaren 26ra ordaindu ahal izango da

2010eko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren errolda egin ondoren jendaurrean jarri dute ikusgai. Ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriak apirilaren 26tik ekainaren 26ra (biak barne) ordaindu ahal izango dira borondatezko aldirian. Helbideratuta dauden erreziboak, berriz, maiatzaren 5ean kobratuko dituzte.

> KULTURA

Pintura lehiaketako koadroak eskuratzeko aukera dago Sastiñan apirilaren 23ra arte

Pintura lehiaketako koadroak salgai jarri dituzte Sastiñan. Interesatuak bertara jo dezakete: apirilaren 16ra arte 18:00etatik 19:30era; bihar, zapatua, 12:00etatik 13:30era; eta astelehenean egubakoitzera, 18:00etatik 19:30era. Koadroak 5 eta 15 eurotan jarri dituzte salgai.

> JAIK

San Martin jaiak prestatzen joateko bilera egingo dute astelehen arratsaldean udaletxean

Aramaioko San Martin jaiak prestatzeko lanetan dihardu Jai batzordeak dagoeneko. Hain zuzen ere, hirugarren bilera egingo dute astelehenean, hilaren 19an, udaletxean, 18:00etan. Gaiarekin interesa duten guztiei bileran parte hartzeko deia egin diete Udaltetik, ahalik eta partaidetza zabalena lortzeko asmoz.

> ERRETIRATUAK

Astelehen goizean Galizia eta Portugal aldera joango dira Alaiak elkarteko erretiratuak

Alaiak elkarteak antolatuta, astelehenean, apirilaren 19an, Galiziara eta Portugalera bidaia egingo dute herriko erretiratuak. Apirilaren 26ra arte ibiliko dira han, eta, besteak beste, Santiago, Coruña, Finisterre, Braga eta Portora bisitaldiak egingo dituzte. 35 lagun inguru joango dira Aramaiotik.



lazgo udaleku irekietan parte hartu zuen haur taldea.

L.Z.

ELGETA > GAZTERIA

Proposamenak, gazteei zuzendutako zerbitzuak hobetzeko

Udalarekin batera egoeraren gaineko aurre-diagnosia egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak

beharrrik jaso. "Gaztetxeak herriko gazte guztiak edo gehienak ditu erabiltzaile, eta kafe antzokiak egiten duen eskaintzak herriko eskaintza osatzen du", irakur daiteke txostenean.

HOBETU BEHARREKOAK

Hutsuneak ere antzeman dira, ordea: "Momentu honetan 15-17 urte bitarteko gazteendako ez dago zerbitzurik", dio txostenak, eta zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioan hutsuneak antzeman ditu. Faltan igarri ditu Gazteria batzordea eta horri lotutako udal teknikaria. Baita udal politiketan haur, nerabe eta gazteen zuzeneko parte-hartzea sustatuko duen foro bat ere.

Aurre-diagnosia egiteaz gain, Aldundiak proposamenak ere egin ditu. Hiru urteko epean egiteko plangintza aurkeztu du. Besteak beste, haur, nerabe eta gazteen sustapenerako udal politikak definitzea, zerbitzuen berraztertzea egitea, eta *Elgeta danon artian* prozesu parte-hartzailean adin horretako elgetarren parte-hartzea sustatzea.

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

0-29 urte bitarteko herritarrei buruz ari gara; haurrak (0-12 urte), nerabeak (13-18 urte) eta gazteak (18-29 urte). Elgetan 276 lagun daude uneotan adin tarte horretan; herritarren %25,5.

Aldundiak berriki aurkeztutako txostenak nabarmentzen du adin tarte horretako biztanleendako Elgetan zerbitzu ugari daudela, eta orain arte "ibilbide egokia" izan dutela. Udalak emandako zerbitzuak hartu dira kontuan (ludoteka, gaztelekua, udaleku irekiak...), baita herrian dauden bestelako eskaintzak ere (gaztetxea, kirol elkarteak, kafe antzokia...).

Antzeman da haurrek dutela eskaintza osatuena, eta, gazteei dagokienez, ez da zerbitzu baten

ELGETA > FORMAZIOA

Interesa piztu dute apirilean egitekoak diren ikastaroek

Eskaera ikusita, Udala bigarren txandak antolatzea aztertzen ari da

L.Z. > ELGETA

Oinarrizko sukaldaritza ikastarorako sei lagunek eman dute izena eta martitzenean, hilak 20, hasiko da. Bereziki gazteei zuzenduta, oinarri-oinarrizko jakiak prestatzen ikasiko dute bertan. Photoshop edo argazkilaritza digitalaren gaineko ikastaroa hurrengo egunean, eguaztenean, hasiko da. "Bi talde osatzeko adina jende eman du izena", adierazi du Ana Gillegi zinegotziak. "Bigarren txanda egingo den ala ez aztertzen ari gara". Bizikasi erakundearen

finantzazioarekin antolatu dira bi ikastarook eta zeresana izango du erabaki horretan.

Ogia egiten ikasteko tailerak ere harrera ona izan du. Gillegiren esanetan, horretan ere bigarren talde bat osatzeko adina jende dago. Ozkarbi elkartean egingo da ikastaro hori, hilaren 24an.

LIBURUAREN EGUNA

Liburuaren Nazioarteko Eguna datorrela-eta, udal liburuzaia, Maria Elena Eztenaga, hasi da urteroko ekintzak prestatzen. Aurten ere apirilaren 23arekin liburuak Herriko Plazara ateratzeko asmoa agertu du. "Urtero moduan, kalera aterako naiz liburu berriei eta kentzeko ditudanekin". Baliteke, gainera, Udalak liburutegian ekitalditxoaren bat egitea.

> KIROLA

Domekan, hilak 18, jokatu dira frontenisiko finalerdiak eta umeen kros txapelketa

Udalak eta Egoki kirol taldeak kros txapelketan parte hartzeko dei egin diete herriko neska-mutikoei. 11:00etarako egin dute hitzordua, kiroldegian, eta guztiendako opariak agindu dituzte.

Egun berean, frontenis txapelketako finalerdiak jokatu dira; final handirako txartelak daude jokoan, 11:00etan.

> MENDI IRTEERA

Domekan egingo dute Ozkarbi mendi taldeak antolatutako lehenengo irteera

Hamabost lagunek eman dute izena domekarako, hilak 18, Ozkarbi mendi taldeak antolatu duen irteeran parte hartzeko. Lauzpa-bost orduko iraupena duen ibilbidea egingo dute: Araotz-Orkatzategi-Andarto-Araotz. 08:00etan abiatuko dira Elgetatik.

> ERRETIRATUAK

Domekako dantzaldian gogoan hartuko dute Zezilio Totorikaguenak egindako lana

Hutsune handia sumatuko dute erretiratuek domekako dantzaldian: Zezilio Totorikaguenarena, hain zuzen ere. Azken urteotan elkarteko presidente izandakoak lan handia egin du, eta gogoan izango dute hori Voces y Cuerdas taldearekin 18:00etan hasita Espaloian egingo duten dantzaldian.

bere ustez



Sebastian Arantzabal

Aberats bizi gara

Oraindik Aste Santuko oporrak ahaztu ezinda gabiltzanean, gure bizi-tzeko moduz gogoeta egiteko datu batzuk gogoratzea ondo etorriko litzaziguke. Adibidez, munduan egunero 25.000 lagun gosez hiltzen dira, eta mila milioi pertsona baino gehiagok ez dute ez urik ez bizi-tzeko etxerik. Baina gauza hauek hain urrutit geratzen direnez guri bost axola. Gure arazoak beste batzuk dira; krisia, hipoteka...

Lehen munduan bizi gare-nok kontuan izan behar dugu

"Munduan, egunero 25.000 lagun gosez hiltzen dira (...), baina gure arazoak beste batzuk dira"

planetako biztanleen laurdena garelara, baina gure bizi mailarekin kutsadura gehien sortzen dugunak garelara. Lurreko erreserba gehienak xahutzen ditugu. Ezinezkoa izango zen munduko ia 7.000 milioi biztanleok horrela bizi-tzea; planetak ezingo luke jasan. Azken finean, gure aberastasuna mantentzeko munduko hiru laurdenak pobre izaten jarraitu beharko dute. Baina beraien herrietatik gu bezala bizi-tzeko asmoz, ihesean datozenak, ez ditugu begi onez ikusten. Hori bai, hemen asko arduratzen gara pobre-en egoeraz eta haiei laguntzeko limosnatxoak ematen ditugu noizean behin, horrela, gure kontzientziak lasaituz.

LEINTZ GATZAGA > SORAN ETXEA

Azken egunak txerri jana dastatzeko

Bi txarriboda egin dira gastronomia jardunaldietan

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Apirilaren 30ean bukatuko dira Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako III. gastronomia jardunaldiak. Txerria da protagonista azken bi hilabeteotako jardunaldietan eta Soran Etxeko jatetxean bi txarriboda egin dituzte martxoan. Eguneroko menuan

ez daukate txerrikirik Soranen, baina, aurrez eskatuz gero, oraindik aukera dago probatzeko.

MAKROBIOTIKAN ADITUAK

Soraneko ugazaba Montse Valerio pozik dago jardunaldiok: "Egin ditugun txarribodetan 30en bat lagun egon dira eta gustura

geratu dira guztiak". Txerrikia- ren gaineko kontu asko ikasi dutela jakinarazi du eta hurrengo baterako badakitela jeneroa non erosi: "Ona eta legezkoa izan behar du jeneroak eta Basa-txarri izendapena duena apartekoa da, jaterakoan berehala igartzten da".

Jardunaldietako menuaz gain, ezkontza bat eta bataioak

ere izan dituzte Soranen eta orain jaunartzeak datoz: "Krisia igartzten da, lehen baino jende gutxiago dabilelako, baina gu ezin gara kexatu, lanean gabiltza eta". Aste-an, esaterako, makrobiotikan adituak diren hainbat lagun elkartuko dira Soranen; hain zuzen, makrobiotikako menuak eskaintzen dituzte jatetxean, aurrez eskatuta.

> TURISMOA

Gatz museoan jende asko ibili da Aste Santuko egunetan

Aste Santuko jai egunetan bisitari asko izan dituzte Eugenio Otsoa gatz museoan, Eguen, Egubakoitz eta Aste-lehen Santuan batez ere: "Iaz baino gehiago esatera ausartuko nintzateke", dio Aitziber Gorosabel arduradunak.

Bisitari gehienak ingurukoak izan dira, baina tartean madrildarrak eta kataluniar- rrek ere egon dira.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila
Reala-Albacete.
Zapatua. 18:00. Anoeta.

Hirugarren maila
Elgoibar-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Mintxeta.

Gazteak Liga Nazionala
Aretxabaleta-Real Union
Zapatua. 17:00. Ibarra.

Gazteak Euskal Liga
Bergara-Basconia
Domeka. 17:00. Ipintza.

Erregionala ohorezko ma.
Bergara-Beti Gazte
Zapatua. 17:00. Agorrosin.

Aloña Mendi-Tolosa
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Trintxerpe-Mondra
Zapatua. 17:00. Don Bosco.

Erregional preferentea
Antzuola-Amaikak Bat
Zapatua. 16:30. Estala.
Lagun Onak-Aretxabaleta
Zapatua. 16:45. Garmendipe.

Lehen erregionala, igoera
Kostkas-Bergara
Zapatua. 15:30. Matigoxote.
Mondra-Hernani
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Erregionala, kopa
Urki-UDA Arizmendi
Zapatua. 15:30. Unbe

Ohorezko gazteak, kopa eta jaitsiera
Lazkao-Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Arizti.
Burmendi-Mondra
Domeka. 16:30. San Migel.

Gazteak, igoera fasea
Aretxab B-Sanse
Zapatua. 19:00. Ibarra.

Gazteak, Kopa
Bergara-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Ikasberri-Arizmendi
Zapatua. 15:00. Garmendipe.

Ohorezko kadeteak, igoera
Aretx. Arizmendi-Bergara
Zapatua. 12:00. Ibarra.

Emakumezkoak, igoera
Intxausti-Mondra
Domeka. 12:30. Donostia.
Arizmendi-Añorga
Zapatua. 15:30. Almen.

Emakumezkoak, kopa
Bergara-Amaikak Bat
Zapatua. 15:30. Ipintza.

Emakumezkoen F11, txapelketa fasea
Añorga-Arizmendi
Zapatua. 10:30. Rezola.

Emakumezkoen F11 Kopa.
Mondra-Anaitasuna
Domeka. 16:00. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Eskoriatza-Iralabarri
Zapatua. 18:00. Intxausti.

Bigarren maila
Idiazabal-UDA Orly
Gaur. 20:30. Idiazabal.

SASKIBALOAIA

Lehenengo maila, jaitsiera
Baskonia-MU
Zapatua. 17:00. Gasteiz.

Maila autonomikoa
Aloña Mendi-Buytrago
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Gipuzkoako seniorrak, giz.
Krafft Atc.-Sorluce BKE
Zapatua. 18:00. Aiete.

Aloña Mendi-MU
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Donibane-Sorluce BKE B
Zapatua. 16:30. Pasaia.

Gip. seniorrak, emakume.
Zurt Taberna-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Azkoitia.

Gazte emakumezkoak, errendimendua
Easo-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donostia.

Kadete gizon. errendimen.
Easo Haitza-MU A
Domeka. 12:00. Bidebieta.
Santo Tomas-Sorluce BKE
Zapatua. 12:00. Donostia.

Kadeteak neskak, parte-hartzea
STL Egaña-Eskoriatza
Zapatua. 09:00. Donostia.
Carnicas-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Hondarribia.
Sorluce BKE-Mundaiz
Domeka. 11:30. Mariaren La.
STL Luberrri-Arizmendi Esko.
Zapatua. 10:30. Donostia.

Infantilak, mutilak
Aldapeta-LEK
Zapatua. 10:30. Santa Maria.
Goierrri-Sorluce BKE
Zapatua. 12:15. Urretxu.
LEK Ointxe-Easo 97
Zapatua. 10:30. Musakola.
Aloña Mendi-Zubiri
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Infantilak, neskak
LEK Arrasate-Santo Tomas
Zapatua. 10:30. Musakola.
Antigua-Sorluce BKE
Zapatua. 09:00. Donostia.

ESKUBALOIA

Euskadiko txapelketarako igoera fasea
Sorluce BKE-Univ. Deusto
Zapatua. 20:00. Labegarai.

Gipuzkoako Kopa
Izarraitz Aloña-Hegialde
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gipuzkoako 2. lurraldeko txapelketa
Arrasate-Usurbil
Zapatua. 18:00. Musakola.

Federazio sariak
Amenabar-Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Zarautz.

Bergara Sorluce-Urola
Domeka. 12:30. Labegarai.
Citroen Chapime-Bergara S.
Gaur. Zehazt. Iturripe.

Jauja-Verkol Aloña
Zapatua. 11:30. Mutriku.

TXIRRINDULARITZA

Gipuzkoako klasikoa
Bergaran, Ibargarai kalean,
15:00etan. Ziklistek 117
kilometroko ibilbidea izango
dute aurrean.

Aretxabaletako saria
Infantil eta kadete mailako
ziklistek lasterketa izango
dute Aretxabaletan,
Dorletako Amak antolatuta.
Zapatua. 16:00. Basabe.

IGERIKETA

Hegats bakarrek txapelketa
Zapatua. 17:00. Agorrosingo
igerilekuan.

PILOTA

Udaberri Txapelketa, eskuz banaka
Egubakoitza, Bergarako
pilotalekuan, (19:15):
Bergara-Legazpiko
Bergara-Beloki
Bergara-Bergara
Bergara-Goierri.

Egubakoitza, Uarkapen,
19:15ean hasita:
Arrasate-Tolosa.
Zapatua, Bergaran, (16:00)
Bergara-Aurrera Saiaz
Bergara-EPLE
Bergara-Alde Zaharra

Udaberri Txapelketa, eskuz binaka
Zapatua, Bergaran,
16:00etan hasita:
Bergara2-Bergara3
Olalde-Eskoriatza
Intxurre-Euskal Jolas

TXIRRINDULARITZA > GIPUZKOAKO KLASIKOA

Ziklista gazte onenei bultza egiten dien proba bihar

Gipuzkoako gazte mailako klasikoa egingo dute bihar Bergaran, 15:00etan hasita

Gipuzkoako taldeekin batera autonomia gehienetako selekzioak izango dira lehian

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bergarako kaleetan ziklismo-giro ederra egongo da bihar arratsaldean. Espainiako lurraldeetako selekzio onenak izango dira irterera puntuan, Ibargarain (15:00). Eta haiekin batera, baita Frantziako Aviron Bayonnais taldea eta, zelan ez, Gipuzkoako talde guztiak ere.

Lokatzak gazte mailan dagoen lasterketa garrantzitsuenetakoa antolatuko du bihar, eta baita bertan parte hartu ere, bi talderekin: "Taldeen hamar ziklista ditugu Gipuzkoako Klasikoan parte hartzeko, eta bi talde prestatzea erabaki dugu. Sumofic ize-na izango du talde batek eta aurrean Oñatiko taldetik bi ziklista etorri zaizkigunez, Ulmaren ize-narekin korrituko du beste taldeak", adierazi du gazteen entrenatzaile Iker Sanchezek.

Sumoficoko bostekoa osatuko dute Mikel Aristik, Eneko Lizarralde, Hodei Orobengoak, Jon Riverok eta Unai Retolatza. Eta Ulman lehiatuko dira Iker Mugar-tza, Aitor Umerez, Ander Telleria, Anartz Gartzia eta Aitor Las-kurain. Eta Sanchezek argi eta garbi adierazi du ziklistok ez direla tropelean bete-lana egite-

ko irtengo: "Neguan gogor entrenatu dira, eta talde moduan oso ondo gaudela uste dut". Hamar lagun horien artean aipatu behar da Mikel Aristik joan den asteburuan irabazi egin zuela Errenterian: "Horrek konfiantza eman-gio dio, Bergarara etorriko diren ziklista indartsuen aurrean bel-dur barik irteteko balio duena. Baina Aristirekin batera gainontze-ko ziklista guztiak aipatuko nituzke, tropelean geroago eta aurrerago ikusten dutelako euren burua eta taldeko oso emaitza onak lortzen ari garelako". Besteak beste, joan den astean bigarren izan ziren Frantziako Guiche herrian egindako lasterketan,



Egun amateur mailan (Debabarrena) dagoen Xabier

bigarren izan ziren Eibarren eta lehenengoak Osintxun.

OILAR ASKO IZANGO DIRA
Biharko klasikoari begira oilar asko izango dira tropelean. Selek-

Gipuzkoako Klasikoko irabazleak

IRABAZLEA	URTEA	IRABAZLEA	URTEA
Jose Luis Martinez	1995	Julen Goikoetxea	2003
Mikel Roldan (Aretxab.)	1996	David Abal	2004
Alejandro Valverde	1997	Borja Ramos	2005
Ruben Gonzalez	1998	Francisco Garcia	2006
Jonathan Gonzalez	1999	Roman Osuna	2007
Antonio Olmo	2000	Jesus Herrada	2008
Gonzalo Sandias	2001	Haritz Orbe	2009
Asier Mujika	2002		

ITURRIA: LOKATZA

XAKEA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Ibarrekoek lan ona egin dute eta kadeteen mailan Juan Manuel Ruiz izan da onena

X.U. > BERGARA

Euskadiko xake txapelketa jokatuko dute asteburuan, eta ibarreko xakelariak lan ona egin dute. Maila absolutuan Zornotzan jokatuko zizuten partidak eta txapelketako irabazlea Alejandro Franco izan zen, Nazioarteko Maisu madrildarra -Gros taldean jokatzen du-. Bigarren, berriz, Mikel Huerga sailkatu zen, hura ere Nazioarteko Maisu.

Ibarrekoek dagokienez Aitor Alkaide lehiatu zen, eta txapelketa ona eginda rankingean duen postua hobetu zuen Aretxabale-takoak, 3,5 puntu batuta.

Kadeteen txapela ibarrera ekarri zuen Juanma Ruizek. Arrasate-San Andres Xake Taldeko jokalariek bere kategorian duen nagusitasuna erakutsi zuen beste behin, torneoko sei partidak irabazita. Iaz infantil mailan berdin irabazi zuen Euskal Herriko txapelketa, eta kategoria berrian ere lehenengo postua lortu du.

Gaztetan ere izan zen ordezkariarik. Torneoeko ezusteetako bat eman zuen Mikel Alkaide aretxabaletarrak, hirugarren sailkatuta. Uste baino makalago ibili zen torneoko faborito Asier Etxagibel, laugarren.



Juanma Ruiz.

ARRASATE XAKE

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

UDA, lana ondo egiten dabilen Elgoibarren zelaira

Bergarak eta Aloña Mendik etxean jokatuko dute; Mondrak, berriz, Trintxerpera egingo du bidaia

X.U. > BERGARA

Joan den astean Ibarren garai-pen garrantzitsua erdietsi zuen Aretxabaletak, sailkapenean askoz gorago dagoen Zamudio mendean hartuta. Eta oraingo asteburuan ere beste horrenbeste egin nahi dute, aurrealdean dagoen eta denboraldi txukuna egiten dabilen Elgoibarri Mintxetan ezustea emanda. Zamudioaren kontrako bigarren zatian erakutsitako baloi-gosea erakusten

badute, Aretxabaletari irabazteko lanak izango ditu Elgoibarrak.

Ohorezko erregionalean, Bergarak zailtasunetan dabilen Beti Gazteren bisita izango du Agorrosinen. Aloñak, alderantziz, sailkapenean laugarren postuan dagoen Tolosaren bisita izango du domekan Azkoagainen. Mondrako mutilek, berriz, puntu kopuru bera duen Trintxerperen zelaian jokatuko dute.



Arantzeta izan zen iaz Legazpin egin zuten Gipuzkoako Klasikako protagonistetako bat, Sumofic Lokatza taldearekin. LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

zio indartsuak izango dira (Euskadi, Andaluzia, Gaztela Mantxa...) eta selekzioetatik haratako maila handiko ziklistak. Ibilbideari dagokionez 117 kilometro izango dituzte aurrean, ibarreko

errepideetan gehienak. Hori bai, antolatzaileek uste dute 108. kilometroan Asentziara egingo duten igoerak erabakiko duela proba (17:45 inguruan): "Posible da lehenago ihesaldiren bat edo beste

egotea, baina ez dut uste Asentzian abantaila handia hartuko dutenik. Mendate horrek erabakiko du nortzuek egingo duten aurrera, eta nortzuk geratuko diren atzean".

KONTUAN HARTZEKO

Mikel Roldan, Gipuzkoako Klasikoa irabazi duen ibarreko bakarra

14 urte igaro dira debagoindar batek Gipuzkoako Klasikoa irabazi zuenetik. Mikel Roldan aretxabaletarrak lortu zuen balentria, orduan ere Bergaran. Eta balentria diogu, maila oso oneko txirrindularien eskura bakarrik egon delako garaipen hori. Izan ere, hurrengo urtean (1996) Egjan egin zuten lasterketan egungo Caisse d'Epargneko buru Alejandro Valverde irabazi zuen. Hala, antolatzaileek biharko lasterketara gonbidatu dute Mikel Roldan ziklista ohia. Iazko

klasikoan, egun Debabarrenan dabilen Xabier Arantzeta ihesaldi baten sartu zen, Atagoiti igotzen hasi aurretik; baina Madrilgo Selekzioak behera bota zuen ahalegina. Atagoiti faboritoen tropelean pasa zuen Antzuolakoak, eta Oñatira helduta Gaztela-Mantxako bi txirrindulari eta Kataluniako beste txirrindulari batekin ihes egitea lortu zuen, eta lasterketako protagonistetako bat bihurtu. Deskargan harrapatu zituzten eta 18. helmugaratu zen.

> ATLETISMOA

Mari Sol Ramosek eta Maria Jose Gilek urrea jantzi dute Malagan

Arrasateko eta Oñatiko bi atleta horiek beterranoen Espainiako maratoni erdiko txapelketan izan dira lehian, Malagan egin dute txapelketa, eta biak ala biak urrea jantzita itzuli dira handik, euren kategorietan.

Guztira 3.000 atleta izan ziren txapelketan esku hartzen, gizonetako eta emakumetako, eta Euskal Herriatik atleta koadri-la politak egin zuten bidaia, 36 atleta izan ziren-eta guztira. Maria Jose Gilek ordubete eta 55 minutu behar izan zituen proba egin eta urrea irabazteko; Oñatiko Mari Sol Ramosek ere material bereko domina ekarri zuen, 1:25:15 denbora eginda.

> IGERIKETA

Hegats bakarrek txapelketa bihar Agorrosinen

Bihar (17:00) igeriketako txapelketa berezia egongo da jokoan Agorrosinen. Eta berezia izango da baita ikusleendako ere -sarrera doan-, Euskal Herriko urpeko jardueren federazioak antolatuta igerileku baten ikus daitekeen erakustaldirik ikusgarriena egingo dute-eta: hegats bakarrek txapelketa.

Igerilariak hainbat modalitatetan lehiatuko dira: 50 metro apnea, 100, 200 eta 400 metro ur gaitetik, 100 metro bialea eta erreleboetan ere jardungo dute. Txapelketak iraun bitartean igerilekua itxita egongo da erabiltzaileendako, hau da, zapatu arratsaldea.

> TRIATLOIAK

Iban Letamendi eta Beñat Arnaiz txapeldun triatloi eta duatloietan

Triatloi eta duatloietako modalitate ezberdinetan, baina ibarreko bi atleta horiek bikain ibili dira. Batetik, Beñat Arnaiz (Lagunak-Saltoki) aretxabaletarra Segovian izan zen joan den astean, Espainiako duatloi txapelketan, eta maila oso oneko taldeen artean Lagunak taldekoak txapeldunorde izan ziren.

Bestalde, Iban Letamendi oñatiarrak Pirinioetako triatloia irabazi zuen martxoaren 28an, korrika (17km), bizikletan (40 km) eta eskiatzen (7km) ibilita. Oñatikok Glaziarretako Patruila proba gogorrean hartuko du orain esku, Suitzan. Lasterketa 11 ordutan egiteko asmoz joan dira.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

APIRILEKO ZOKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



SASKIBALOIRAKO SARRERAK

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA

Bidali KLUBA ESAIT
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



UMEENTZAKO PUZZLEAK

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Bidali KLUBA ZIRA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA APIRILA-EKAINA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOKKETATUKO DA

GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN



- Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
- Basetxeta Auzoa.
- Gautegez-Arteaga (Bizkaia)
- www.nekatur.net/txohebenta
- www.toprural.com

Maiatzean 20 urte beteko ditugu;
Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

ISMAEL SERRANOREN KONTZERTUA


HERRI SAHARARRAREN GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO ASTEA



APIRILAK 16, OSTIRALA

20:30 Arrasateko Amaia antzokian.
Sarrerak: www.kutxa.net

LAGUNTZAILEAK:



ANTOLATZAILEAK:



G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> SHOW BUSINESS

Bigarren diskoa aurkeztuko dute oñatiarrek gaur, egubakoitza > 32



> UMOREA

'¡Agussssto!' antzezlanaren egingo du Glu-Glu taldeak Elgetan > 32

> AITOR ASTORKIA Bergararra da, 20 urte dauzka eta bitzta erdia darama panderoa ikasten, eta orain, irakasten ere, Jardunen eskutik > 34



Ismael Serranok *Acuérdate de vivir* diskoa aurkeztuko du gaur Arrasaten.

ISMAEL SERRANO

Ismael Serrano > Kantaria

"Sahararren eskubideak musikaren laguntzarekin aldarrikatuko ditugu"

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Ismael Serrano (Madril, 1974) kantautoreak kontzertua egingo du gaur Arrasateko Amaia antzokian, 20:30ean, Sahararen aldeko astea bukatzeko. *Acuérdate de vivir* diskoa aurkeztuko du, eta sahararren eskubideen aldeko aldarrikapena egingo duela esan digu.

Disko berria aurkezteko birarekin Arrasaten egingo duzu kontzertua. Nolako izango da?

Birako bigarren kontzertua da, eta disko berriko kantuak joko ditugu. Baina berezia izango da Sahararen aldeko kontzertua izango delako. Sahararren eskubideen aldeko aldarrikapena egiteko aprobeztatu dugu.

Ez da lehen aldia elkartasun kontzertuak ematen dituzuna.

Egia da. Saharako egoera gertutik ezagutzen dut. Duela hila-bete batzuk, Aminatou Haidarren gose greba zela-eta, beste talde batzuekin elkartasun kontzertua egin nuen. Aurretik, gainera, *Un hombre espera en el desierto* kan-

tua idatzi nuen, Saharako errealtateari erreferentzia eginez.

Elkartasun kontzertuak beharrezkoak direla uste duzu?

Bai. Garbi izan behar dugu Sahararen duten arazoa bezalakoak konpontzeko guztion inplikazioa beharrezkoa dela; ez da politikarien ardurarik bakarrik. Hala, ekimenek jendartearen kontzientziatzeko balio dute.

GKEen eta beste elkarte batzuen bidez egiten dituzten aldarrikapenak eraginkorragoak dira, eta elkartasun kontzertuek erakunde horien aldarrikapenak ezagutarazteko balio badute, ni beti egongo naiz laguntzeko prest.

Amaia antzokiko oholta gainera igota, disko berriko kantuak eskainiko dituzu?

Bilbon hasi genuen biraren helburua da *Acuérdate de vivir* diskoko kantuak jotzea. Baina aurreko lanetako kantuak ezaugarriak ere eskainiko ditugu. Oholtza gainean talde osoarekin egongo naiz.

Nolako da disko berria?

Kantautorea izanik, hitzak oso inportanteak dira. Orain arte egindako disko guztietan nire ikasketak erabili ditut.



DISKOA

Acuérdate de vivir

> **Izenburua:** *Acuérdate de vivir*.

> **Egilea:** Ismael Serrano (Madril, 1974).

> **Grabazio data:** 2009ko azarotik 2010eko otsailera.

> **Iraupena:** 62'47".

2008an argitaratu nuen *Un lugar soñado* lana, eta bi urtean bizi izandakoak jaso ditut lan berrian. Ipar Amerikako folkaren, Latinoamerikako musika tradizionalaren eta flamenkoaren ukituak ditu. Dena den, autore musika da nagusi; alegia, hitzak eta poesia.

Kanturen bat nabarmenduko zenuke?

Ez. Disko luzea grabatu dut, 15 kantukoa. Guztiak beharrezkoak ziren diskoan, ez nuen bakar-

bat ere kanpoan utzi nahi. Horregatik, ezingo nuke bat aukeratu. Kantu guztiak istorio bereko kideak dira, eta diskoari osotasuna ematen diote.

Nortzuk gonbidatuko zenituzke gaurko kontzertura?

Hitzak, poesia eta musika gustuko dituztenak gonbidatuko nituzke, eta diskoa ezagutu gura dutenak ere bai.

Kontzertu lasaia eta atsegina egingo dugu; erlaxatzeko modukoa izango da.

20 lagun bildu ziren egunean Eskoriatzan Mendebaldeko Saharari buruz berba egiteko

Mendebaldeko Sahararen errealtatea erakusteko hainbat ekintza antolatu dituzte asteen Nubi eta lesbaa elkarteek. Herritarrek ondo erantzun dute. Atzo, esaterako, 20 lagun batu ziren Eskoriatzako afari-tertulian; eta Aretxabaletan eta Oñatin eman duten *Un grito desde el Sahara* dokumentala ikusten 30en bat lagun egon dira. Antolatzaileak gustura daude. "Hotzean begiratuta, ez dira pertsona asko. Baina beste batzuetan ez da inor agertu gure deialdietara. Alde horretatik, oso pozik gaude", esan digu Nubi elkarte Agurne Juldainek. Gaineratu digu Ismael Serranoren kontzerturako sarrerak badaudela oraindik.

MUSIKA > DISKO AURKEZPENA

Show Business taldeak azken diskoa gaur aurkeztuko du

'Pozoindutako hitzak' disko berriarekin batera bideoklipa ere erakutsiko dute

18:00etan Oñatiko Ona tabernan aurkezpena izango da eta 22:30ean gaztelekuan kontzertua

NEREA MENOR > OÑATI

Ibarrean aski ezaguna da Show Business talde oñatiarra. *Eter del Demonio* kaleratu ondoren, *Pozoindutako hitzak* dakarkigute oraingoan, disko landuagoa eta astunagoa, eta The Hellcopters eta halako talde handien influentziak betea.

Hiru hilabeteko grabazioaren ostean, 12 abesti eta bideoklip batez osatutako lanarekin datoz, digipack formatuan ekoiztua.

Disko berriaren aurkezpena Oñatiko Ona tabernan izango da, gaur, arratsaldeko seietan. Diskoa erakutsi eta abuztuan grabatu zuten bideoklipa eman godo dute.

STONER UKITUAK ORAINGOAN

Grabazioa hasi aurretik beste gitarrista bat batu zen taldera: Mikel Fernandez. Haren influen-

tzia oso garrantzitsua izan da: "Estiloari eutsi egin diogun arren, bi gitarraz baliatuta kantutak landuagoak irten dira eta stoner ukitua ere gehitu dizkiegu: astunagoak dira, sakonagoak", azaldu digu Igor Agirrek, taldeko abeslariak.

Kirrin soinu teknikariaren gidaritzapean herriko musika eskolan grabatu dute materiala eta ahotsak, eta masterizazioa teknikariaren estudioan egin dute. "Hasieratik argi genuen zein zen lortu nahi genuen soinua. Oso pozik gaude emaitzarekin, Kirrinek oso lan ona egin du".

BIDEOKLIPA

Abestiekin batera taldearen bideoklipak osatzen du diskoa. Aitor Perosterena eta Kepa Aranbururen ekipoaren gidaritzapean grabatu zuten, udan. "Bideoa grabatzea oso lan luzea izan da; 2-3 egun



Show Business oñatiarren bigarren lana entzungai izango da gaur gauean Oñatin.

SHOW BUSINESS

eman genituen grabatzen eta ondoren muntaketa lanak astunak izan ziren, baina oso pozik gaude lortutakoarekin".

SHARON STONER

Aurkezpena bukatu eta gutxira kontzertua hasiko da Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean. Kontzertu berezi horretan gonbidatuak ere izango dituzte: *Errockalde*-ko Sharon Stoner taldeak joko du aurrena. Eta sorpresak ere egongo direla aurreratu digu Igor Agirrek.

KONTZERTUA ESPALOIAN

Anger eta Gose taldeak bihar Elgetan

Bihar, 22:30ean, Elgetako Kafe Antzokian kontzertu berezia egongo da. ETB3 kateak Gosek bertan egingo duen musika emanaldia grabatuko du. Sarrerak salgai egongo dira 7 eta 5 euroren truke.

Gaua hasteko Anger taldea igoko da agertokira. *Sedukzioaz* lan berria aurkezteko kontzertuekin jarraituz, Elgetan izango dira

oraingoan. Taldearen laugarren diskoa da eta oso kritika onak izan ditu.

Haien ondoren Gosek hartuko du lekua Ines Osinagaren gidaritzapean. *Gorria* disko *Lokartu arte* abestiaren bideoklipa aurkeztu berri dute; eta, beste behin ere, ikus-entzuleak liluratze-ko prest agertuko da Arrasateko hirukotea.

Barrenkale 35, Bergara - Tel.: 943 76 24 12



- ezkontzak - estudioak - jaunartzeak - kaleko erreportaiak -

Garai berriak, aire berriak!

Zatoz eta bisita ezazu gure blog berria!



www.kbphotoestudio.wordpress.com

MUSIKA > KONTZERTUA

Debagoieneko musika eskolen kontzertua, 23an

Bailarako eta Sorluzeko 60 ikaslek joko dute Arrasateko Amaia antzokian

N.M. > ARRASATE

Ibarreko musika eskoletako ikasleen trebetasuna ikusi ahal izango dugu datorren egubakoitzean, apirilak 23. Kontzertua 18:30ean hasiko da Arrasateko Amaia antzokian.

Zazpigarren urte honetan, sei musika eskolak hartuko dute parte: Bergarako Musika Eskolak; Oñatiko Jose de Azpiatzuk; Eskoriatzako Beheko Errotak; Aretxabaletako Leizarrak; Arrasate Musikalek; eta Sorluzeko Musika Eskolak. "Azkenekoak Debagoienekoak ez izan arren, gertutasunagatik partehartzaile izatea pentsatu

genuen", adierazi digu Arrasateko Musikaleko Edorta Aiasuik.

ORDUBETEKO KONTZERTUA

Guztira, 60 ikasle bilduko dira Arrasaten, eta entzule kopuru polita espero dute. "Antzokia betetzeko asmoa dugu; hala izaten da gehienetan", dio Aiasuik. Talde bakoitzak 10 minutu inguru izango ditu prestatu duen lana interpretatzeko.

Kontzertuari amaiera emateko, Bea Azurmendi eta bere taldeak 10 minutuko kontzertua eskainiko dute. "Arrasateko ikaslea da Azurmendi eta azkenaldian bere taldeak duen arrakasta ikusita ospakizunera gonbidatu nahi izan dugu", argitu digu Aiasuik.

"Giro ezin hobea egon ohi da urtero eta kontzertuari esker gaztetxoaren arteko harremanak sendotu egiten dira".

ANTZERKIA > '¡A GUSSSSTO!'

Umorea, Gurutze Beitia eta Gorka Aginagalderen eskutik

Gaur bertan izango dira Elgetako Espaloian, '¡A Gussssto!' izeneko antzeztanarekin

22:30ean hasiko da, eta sarrerak dagoeneko salgai daude 8 eta 10 euroren truke

NEREA MENOR > ELGETA

Gaur bertan izango dugu ¡A Gussssto! antzezlana ikusteko aukera Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. 22:30ean hasita, ordubeteko saioa eskainiko digute Gorka Aginagalde eta Gurutze Beitia aktoreek. Sarra 10 euro izango da. Bazkideentzat, baina, salneurri berezia egongo da: 8 euro.

Cocidito madrileño, Todos nacemos vascos eta Kanpaiak jo bitartean antzeztanak gogoko izan zituztenendako egokia da.

EUSKAL HERRITARRA KUBAN

Glu-Glu produkzio etxearen eskutik datorkigu ¡A Gussssto! antzezlana. Istorio umoretsua azaltzen digute bertan: Patxi Arrigakorritzerriberrigoitiabeitia (Gorka Aginagalde) Kubara joan da turismo sexuala egitera

eta Estela Maria Lourdes de Aquitepilloaquitemato (Gurutze Beitia) ezagutu ondoren maitemindu egingo da.

Ikuskizun "euskal-kubatar" dibertigarria aurkeztuko digute oraingoan, "hango eta hemengo umorearen nahasketa bat, aureskua eta reggaetona nahastuko dituen antzezlana. Gustura pasatzeko, motz geratuko zaizkizuen 60 minutu". Horrela aurkeztu digute ¡A Gussssto! antzezlana Glu-Gluko kideek.

23AN ZABALOTEGIN

Edozelan ere, Elgetara gerturazterik ez dutenentzat edo berriro ere antzezlana ikusi nahi dutenentzat, beste emanaldi bat egongo da Bergaran. Hain zuzen ere, hilaren 23an izango da, Zabalotegi aretoan, 22:30ean, 5 euroen truke.



Bi protagonistak.

GOIENKARIA

> DIAPORAMA

La Tadrat basamortuaren edertasuna ikusgai

La Tadrat izeneko diaporamaren emanaldia eguaztenezan izango da, 19:00etan, Zabalo-tegiko aretoan. Ordu erdi pasatxo iraungo du eta ondoren solasaldiarekin hasiko dira.

Migel Anjel Otsoa de Alda eta Imanol Diaz de Garaio legazpiarrak dira diaporama horren sortzaileak. Afrikako basamortu eder eta ezezagunetako bati buruzko ikusentzunezkoa, etxean nahiz atzerrian sari ugari irabazi dituena.

> MUSEOAK

Gipuzkoako museoen informazioa lortzeko webgunea

Dagoeneko martxan da Gipuzkoako museoen webgunea: www.gipuzkoakomuseoak.net.

Herrialdeko museo, interpretazio-zentro eta espazio museistiko guztien eskaintza biltzen da bertan. Gainera, erabiltzaileek gustuko duten gaiarekin lotutako eskaintza ezagut dezakete, eta, ataria hobetze aldera, iradokizunak eta komentarioak egiteko aukera dago.

ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00

HILEKO 3. ZAPATUAN

apirilak 17
maiatzak 15
ekainak 19
uztailak 17
irailak 18
urriak 16
azaroak 20



Argazkia: Martin Diaz Zurutuza

Aitor Astorkia > Pandero irakaslea

"Eskertu egiten diot Jarduni umeei panderoa irakasteko aukera ematea"

Panderoa da Aitor Astorkia ber-
gararraren zaletasunik handie-
na eta horregatik ordu asko
eskaintzen dizkio. Duela hamar
urte hasi zen panderoa jotzen
ikasten eta orain, Jardunen
eskaintza bati esker, umeei ira-
kaste die. Atsegin du irakas-
tearen ideia eta horrekin lotu-
ta Irakasle ikasketak egiten
dihardu Eskoriatzako Mondra-
gon Unibertsitatean.

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Belarri fina dauka Aitor Astorkia gazteak eta, horregatik, erritmoa jarraitzea ez zaio nekeza egiten. Urte asko daramatza panderoa jotzen eta orain, jo ez ezik, irakatsi ere egiten du Astorkiak. Irakastearen mundu horrekin lotura estua dute gaztearen ikasketek; izan ere, Irakasle ikasketak egiten dihardu.

Noiztik jotzen duzu panderoa?

Duela hamar-hamaika urte hasiko nintzen panderoa jotzen. Urte asko dira. Jarduneko trikiti eskolan ikasi nuen. Kartzela zaharrean izaten ziren eskolak. Egun, oraindik eskaintzen ditu Jardunek trikiti eta pandero eskolak.

Zergatik aukeratu zenuen instrumentu hori?

Ni ez naiz ondo gogoratzten, baina gurasoek esaten dute betidanik izan dudala gustuko panderoa. Gainera, haiek animatu ninduten probatzera. Ez dut beste instrumenturik probatu. Ondo joan zaizkit lehenengo urteak eta ez dut aldatu ere egin.

Zaila da panderoa jotzea?

Bueno, gustatuz gero eta intentzioa eta interesa jarriz gero, uste dut lortzen dela. Niri betidanik gustatu zait eta nahiko erraza iruditzen zait. Urte asko daramatzat, baina gustukoa dudanez pozik nago. Gainera, beste instrumentu asko baino errazagoa da, notarik ez duela. Eskolen mugimenduekin soinu ezberdinak lortzen dira.

Panderoa jotzeaz gain, eskolak ematen dizkiezu umeei. Nola sortu zen irakastearen ideia?

Jardunekoek proposatu zidaten, eta, Irakasle ikasketak egiten nabilenez, aukera ona iruditu zitzaidan eta baiezkoa eman nien. Eskertzen dut proposatu izana. Eskolak Arrizuri jauregian izaten dira.

Zenbat umeri irakasten diezu?

Astean bi arratsaldetan ematen ditut eskolak. Ordu erdiko eskolak izaten dira eta eskola bakoitzean hiru-lau ume ditut. Guztira, hogeitatu umeri irakasten diet. Adinari dagokionez, 7tik 13 urte bitartean dituzte. Hor inguruan daude guztiak.

Umeak abilak dira ikasten?

Bai, abilak dira, bai; nagusiek baino gehiago ikasten dute. Erraztasun handia dute. Gainera, panderoak notarik ez duenez,



NAROA ODRIOZOLA

PERSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 20 urte. **Ikasketak:** Irakasle ikasketak egiten dihardut Mondragon Unibertsitatean. **Zaletasunak:** Mendira joatea, marraztea, parrandan irtetea... **Irakurritako azken liburua:** Toti Martinez de Lezearen *La Herbolera*. **Gustuko film**

bat: Fernando Bernues eta Mireia Gabilondoren *Kutsidazu bidea, Ixabel*. **Abesti bat:** *Mendian gora*. **Bizi izateko leku bat:** Euskal Herria. **Bergarako lekurik gustukoena:** Alde zaharra; San Pedro, Arteka-le... **Sarri esaten duzun hitz bat:** Trankil.

aurreko lau atzamarren eta atzamar potoloaren arteko jokoak egin behar da. Hasi berriak badira, musika barik hasten naiz azaltzen. Bigarren urtetik aurrera, musika pixka bat ipintzen diet.

Guztira, zenbat ordu eskaintzen dizkiozu panderoari?

Hasi nintzanean ordu asko eskaintzen nizkion, hasierako urteak zailenak izaten direlako. Gero, poliki-poliki erromerietan, sagardotegietan edo auzoren bateko jaietan jotzera joaten hasi ginen. Egun, eskolak ematen ditudanean, astean zehar lauzpabost ordu eta, noizbehinka, jaiak direnean edo horrelakoetan bakarrik jotzen dut.

Horrez gain, Irakasle ikasketak egiten diharduzu. Zer moduz doaz?

Mondragon Unibertsitatean nago Atzerriko Hizkuntzako espezialitatea egiten. Hau nire bigarren urtea da eta, oraingoz, oso ondo nago, gustura.

Zergatik aukeratu zenituen ikasketak horiek?

Hasiera baten, ez nuen argi zer egin. Filologia egitekotan egon nintzen. Ingelesa beti izan dut gustuko eta umeak ere gustatzen zaizkit. Irakasle ikasketak biak lotzen ditu, eta, horregatik, hori egitea erabaki nuen.

Praktikak egiten aritu zara ikastetxe baten. Zer moduzko esperientzia izan da?

Urtarrila eta otsaila bitartean egin nituen praktikak, San Martin ikastetxean. Praktiketako lehenengo esperientzia izan da eta oso ondo joan da. Egia da ikasgelan ikasitakoa praktikan jartzea oso zaila dela. Teorian erraz esaten dira gauza asko, baina horiek desberdin azaltzen dira praktikan, edo ez dira azaltzen.

Pazientzia handiko pertsona zara?

Pazientzia dudala esaten didate, eta nik ere horrela dela uste dut. Gero, haserretzeko puntua ere badaukat, baina normalean pazientzia izaten dut.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Mendira joatea gustatzen zait, eta orain eguraldi ona datorrela aprobetxatu beharko dut. Marraztea ere gogoko dut, eta parrandan irtetea ere, noski.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arexabaleta. Etxebizitza salgai erdialdean. 72 m²ko eraikigarri. Hiru logela, sukaldea, egongela, komun bat eta trastelekua. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

Arrasate. San Andresen, Arrasate dorrean, 93 metro koadroko etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera begira eta ondo kokatua. Lau logela, bi komun, sukaldea, egongela eta bakoitzak 32 metro koadroko bi terraza. Eguzkitsua. 297500 euro. Isabel. Deitu telefono zenbaki honetara: 690 07 85 83.

2/ GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Bidebarrieta kalean garaje bat hartuko nuke errentan. 600 02 32 19 edo 646 69 77 77.

Oñati. Garaje itxia behar dut Kale Zaharrea edo aldameneko kaleren batean. 647 24 40 54.

4/ LANA

402. ESKAERA

Arrasate. Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699 54 17 27.

Arrasate. Emakume gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketarako, orduka. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 16 40 49.

Arrasate. Zerbitzari edo garbiketari lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 619 78 63 41.

102. EROSI

Arrasate. Egurrezko egitura eta gutxienez 3 logela dituen etxea erosi nahi dugu. Asier. 610 67 12 22.

103. ERRENTAN EMAN

Arexabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 3 logela, sukaldea, komun eta egongela. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 652 76 79 57.

Bergara. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Deitu telefono zenbaki honetara: 664 73 49 60.

Lapuebla de Labarca. Etxebizitza ematen da errentan uztaierako. Sukaldea, egongela zabala, bi logela, bi komun eta 11,5 metro koadroko terraza. Komunitateko igerilekua eta berdegunea. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 89 11.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Txikia eta erdigunean. Deitu 943 79 60 89 zenbakira.

Bergara. Bi logelako etxebizitza behar du errentan familia batek. Deitu 650 62 12 94 telefonora.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 609 38 86 47.

Eskoriatza. HUHEZIKO hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Deitu telefono zenbaki honetara: 635 20 25 76.

2/ GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Bidebarrieta kalean garaje bat hartuko nuke errentan. 600 02 32 19 edo 646 69 77 77.

Oñati. Garaje itxia behar dut Kale Zaharrea edo aldameneko kaleren batean. 647 24 40 54.

4/ LANA

402. ESKAERA

Arrasate. Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699 54 17 27.

Arrasate. Emakume gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketarako, orduka. Deitu telefono zenbaki honetara: 647 16 40 49.

Arrasate. Zerbitzari edo garbiketari lanak egingo nituzke. Deitu telefono zenbaki honetara: 619 78 63 41.

102. EROSI

Arrasate. Egurrezko egitura eta gutxienez 3 logela dituen etxea erosi nahi dugu. Asier. 610 67 12 22.

103. ERRENTAN EMAN

Arexabaleta. Etxebizitza ematen da errentan. 3 logela, sukaldea, komun eta egongela. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 652 76 79 57.

Bergara. Erdialdean etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Deitu telefono zenbaki honetara: 664 73 49 60.

Lapuebla de Labarca. Etxebizitza ematen da errentan uztaierako. Sukaldea, egongela zabala, bi logela, bi komun eta 11,5 metro koadroko terraza. Komunitateko igerilekua eta berdegunea. Deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 89 11.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Txikia eta erdigunean. Deitu 943 79 60 89 zenbakira.

Bergara. Bi logelako etxebizitza behar du errentan familia batek. Deitu 650 62 12 94 telefonora.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.
- LOKALA SALDU/ALOKATU.
- GARAJEA SALDU/ALOKATU.
- MOTORRA SALDU/ALOKATU.

GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).

PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULO)

MODULO 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 21 € (+ BEZ).

GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 28 € (+ BEZ).

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Debagoiena. Autocad programarekin marrazkiak eta diseinu mekaniko zein arkitektonikoak egiten ditut. 696 38 10 07.

Debagoiena. Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko eta ospitalean gauak egiteko. Deitu 637 18 07 23. zenbakira.

Debagoiena. Emakume euskalduna prest edozein lanetarako. Edozein ordutegi. 646 87 36 57.

Debagoiena. Emakume gazteak nagusiak edo haurrak zainduko nituzke. 606 72 28 76.

Debagoiena. Emakumea etxe etxe pedikura eta manikura egiteko prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 654 79 07 58.

Debagoiena. Emakumea gertu lan egiteko. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 649 71 95 21.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu sukalderi laguntzaile lanekin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo asteburuetan. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 697 93 73 32.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketari lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 689 88 97 66.

Debagoiena. Etxeko lanak zein garbiketarako egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile ere. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 630 20 12 03.

Debagoiena. Gaztea gertu erakuntzan edo bestelako arlo batean lan egiteko. 696 48 42 50.

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 689 93 58 41.

Debagoiena. Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Interesatua egonez gero deitu zenbaki honetara: 689 93 58 41.

